

ARRASATE

PRESS

Arrasate 1991ko Otsailak 15, 95. zenbakia

Udalaren laguntzarekin eta AEDren ardurapean



**JOSE ANGEL
BARRUTIABENGOA,**
Zientzi
Elkarteko
lehendakaria

Mozorro gaua

Joseba

GORRA
Urteko autoa
EUROPA



RENAULT CLIO
1991ko
urteko autoa
Europar.



Etorri ikustera
MECA TAILERRETARA.

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA ZURE ZERBITZURAKO



Gipuzkoako Foru Aldundia

ARRASATE PRESS

ASTEKARIA

Argitaratzailea:

Arrasate Press taldea (AED)
Azoka kalea 1, 20.500 ARRASATE.
Tfnoa: 77 05 65

Laguntzailea:

Arrasateko Udala

Zuzendaria:

Joxe Aranzabal

Erredakzioa:

Beñardo Kortabarría. Arantzazu Loidi

Publizitatea eta harpidetzak:

Josune Biteri
Tfnoa: 77 08 15

Maketazioa:

Goio Arana

Erredakzio-kontseilua:

Jose Felix Diaz de Tuesta, Harry Zاراia, Iñaki Mendiguren

Kolaboratzaileak:

Josemari Velez de Mendizabal, Mikel Irizar, Karmele Zuazubiskar, Patxi Montero, Juan Martin Elexpuru, Eukeni Olabarrieta, Arantxa Lizaso, Gerardo Markuleta, Estepan Plazaola, Jesus Mari Garai, Juanito Leibar, Jerardo Elortza, Blanka Jauregi, Klarion Taldea, Joseba Vallés, Karmelo Uribarren, Iñaki Aranburu, Hankamotz, Maite Toledo, Atalataikoan, ASA taldea, Xabin Arrieta.

Inprimategia:

Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati)

Banaketa arduraduna:

J. L. Arejolaleiba

Copyright:

ARRASATE PRESS

Tirada: 7.000 ale

Lege-Gordailua: 1124/88

ISSN: 0214-4654

Frankeo kontzertatua: 37-60

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta eritzien erantzunkizunik.



ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Kapitain handiaren dirukontuak

Duela urtebete, gutxi gorabehera, ATB jaio zen. Garai berean beste zenbait telebista katea ere agertu zitzaizkigun, ordura arte aurrekontu ofizialetatik sortu eta garatutakoei -hitzaren zentzurik osasuntsuenean-lehia egiteko.

Urtebete eman ondoren, katea horietako batzuek euren balantzeak-ekonomia eta ikusentzunezkoari dagozkionak- agertu dituzte. A3 delakoak, adibidez, asteburu honetan egindako prentsaurreko ponpox batean zera jakin erazi du: uste zutena baino 2.500 milioi pezeta gutxiago galdu dituela. Zenbaki apalagoetara ohituta dagoen kristau honek ezin zezakeen uler -lehen unean, bederen- Martin Ferrand zuzendariak pantailaz bestalde-tik esaten ziona.

Gaueko ixiltasunak eskatzen duen giro aproposenean, ordu pare bat lehenagoko prentsaurrekoa oroitu dut eta arestian Giuseppe Richeri komunikologo italiarraren irakurritako zenbait hausnarketarekin alderatu dut A3ren mezua. Orduan bai, orduan ongi ulertu dut telebista katea horren galera izugarria. Agian, galera ez inbertsio baizik titulatu beharko luke, izan ere epe luzerako plangintza burutsuan ereiten ari bai dira telebista horiek euren hazia.

60 eta 70. hamarkadetan telebisten helburuak interes politiko eta kultural-

kin lotzen baziren ere, 80 eta 90.ekoetan ekonomi-irabazia dute jomuga katearik gehienek (guztiek?). Azken urteotan izugarritzko borroka ematen ari da komunikabidetako kontrola lortzeko ... batipat, publizitatearen opil gozoa bereganatzeko. Telebistaren arloan diharduten enpresen artean, 1988-89 tartean berrogei "joint-venture" edo enpresa-elkarketa eman dira Europan eta, adituen ustez, hamarkada honen bukaeran zazpi izan daitezke komunikabideetako alor zabala kontrolatuko dutenak. Ongi, ezta? Maxwell, Berlusconi, Hachette eta abar labor batek telezuzenduko gaituzte, euren interes ekonomikoen arauera.

Testuinguru horretan, beraz, aztertu behar dira telekatea pribatuaren balantzeak.

Gizabanako arruntak, noski, gero eta ahalmen gutxiago izango du, gainera etorriko zaion publizitate jario horren aurrean. Ehundaka, milaka kilometrotara erabakiko da zer ikusi behar dugun, zer ordutan eta zernolako publizitate motak apainduta. Inposatu egingo zaizkigu hizkuntza eta kultur oinarria. Lege eta kontrol arauk ez dute zereginik izango, euren garapenean legeria guztiak bajno azkarrago ari diren multinazionalen kontra.

Ene eritzi apalez, ATBren gisako errealitateak izango ditugu haize freskoa ahalbideetako diguten bakarrak.

Josemari Velez de Mendizabal



**enpresa
bazkariak
eta famili bilerak**



gili gili

Iturriotz 9, Tfnoa: 79 94 57

HIRE

Liburu eta oparidenda

Iturriotz 4, Tfnoa 79 14 84



ZENBAKI

Kontabilitatea
Fiskalitatea
Lana
Zuzenbidea
Juridikoa
Finantzaketa
Aseguruak

Basabe industrialdea
 Tfnoa: 79 88 75
 79 75 99

ARETXABALETA



**ETXE-
-AUNDI**

**Ostiraletan
d a s t a t u
g u r e
m e n u
b e r e z i a k**

3.500 pta. inguru

Torre Auzo 9, Tfnoa: 78 19 56
OÑATI

Lurraldeari gutun irekia

Honako honen bidez, pasa den urtarrilaren 24ean, Antzuolan autobiari buruzko bi bideoen, bata Foru Aldundia-ren proiektuarena eta bestea Lurraldearen proiektuarena, konparaketaren inguruan antolaturiko saioan euskarak izan zuen (edo falta izan zuen) leku edo tratamendua salatu nahi dugu.

1. Antzuolako herriari begiratuz (%70ak euskaraz badaki) onartezina da, bideo-emanaldia anuntziatuz jarri ziren kartelak gaztelaniaz agertzea, bertan jarri ziren datuak edozeinek uler bait ditzake. Onartezina!
2. Foru Diputazioaren bideoa euskaraz ikusi ahal izan genuen arren, Lurraldearena erdara hutsean jasan behar izan genuen. Lotsagarria!
3. Hirugarren, eta azkenez, Lurraldeatik, Lurraldearen sorkuntza, garakuntza eta proiektua azaltzera etorri zenak, agurra euskaraz egin zuen arren, (nola ez!!), gainontzekoa gaztelania hutsez jaurti zigun (hobeto moldatzen omen zen gaztelaniaz). Errematea!

Jakin badakigu Lurraldeak bideo hori euskaraz ere baduela, eta ez baleuka, bere arazoa, eta azalpenak ematera etorri zenak, euskaraz ezin baditu eman, eman ditzala Madrilen baina ez Antzuolan.

Gutun honek han elkartu eta amorratuta eta erasotuta sentitu ginen euskaltzaileen ohiartzuna izan nahi du. Dagokienez belarri edo begietara helduz, ea nolabaiteko efekturik lortzeko gai den. Besterik gabe, agur bat.

*Idolaz
Antzuolako Euskara taldea*

M. Irizarri

Bizpahiru bider nire karta irakurri ondoren (eskerrik asko) eta hala ere adarretatik ibili naizela uste badu ere, aterako du nire karta berria irakurtzeko astia.

Ez naiz berriro esplikazioak ematen hasiko, seguru nago, bueno, suposatu egingo dut, nik esandakoak lehengokoan ere ondo asko ulertu zituela, eta bizpahiru aldiz irakurriko zuela baina "enkarguzko" erantzun bat emateagatik.

Zergatik uste behar du, kabreoak eramanda idatzi nuela, iraindua sentitzen naizela edo J.A.-rekin sartzeko aitzakia

topatu gura nenbilela? Ez al dio kasu larregi egiten mezulariari eta apenas mezuari adarretatik hain urrun dabilenak? Ez has mezularia garbitu arazten zuen tiranoarenak egiten!

Asuntua ez da, Joxe Aranzabalen iritziekin bat ez etortzeko eskubide osoa daukagula ezta Irizarrek nire kartarihartzen dion kabreo kutsua ere (ez dakit zergatik, egia esan) Joxe Aranzabalek ez duela gezurrak esateko eskubiderik eta denon zergen dirukin egindako aldizkari batetan inpartzialagoa izateko obligazio daukala baino.

Beste aldetik, Irizarrek deritzon "funtsezko arazo" horretan, ez naiz sartuko Arrasate Pressen oreka/desorekak, aseptiko/septikoak berak jakingo du ze influentzia duen aldizkariaren bideak markatzeko, baina kontrako iritsi bat agertzen den bakoitzean iritzi hori ematen duenaz horrelako bidegabekeriak esan behar baditu, ez dut aste aldizkari orekatu bat lortuko denik, Honorable Societá-ren gusto txarreko boletin ofiziala baizik.

Agur denoi,

R. Ugalde


Gosearen aurka

Hirugarren mundua deituaren aurrean, "Mundu aurreratua" deitzen diogun honetakook badugu zer esanik. Besteen pobrezia, gose eta miseriaren errudun gu ere bagara, alperrik itxiko ditugu begiak. Joan den asteburuan gosearen aurkako kanpaina burutu du Manos Unidas erakundeak, eta aurtengo lematzat honako hau aukeratu dute: Justu izatea konprometitzea da. Aurten inoiz ere baino gehiago, aurreratu ustekoon laguntzaren beharrean izango dira hainbat herrialdetan. Golko Pertsiarreko gerratearekin ere, eta informazio asko izkutatzen digutelarik, zenbat milako ote dira hilak eta zenbat goseak hiltzen daudenak?

Iaz Manos Unidas erakundeak burututako kanpaina hiru mila milioitik gora batu zen, Asia, Afrika, Amerika eta Ozeaniako 51 herrialdetan erabili zelarik diru hori. Guztira, 879 garapen proiektu finantziatu ziren, nekazar, gizarte, kultur, hezkuntza, emakumearen promozio eta antzeko gaietan. Aurtengoan ez daitezela gutxiago izan. Zure laguntasuna ere beharrezkoa da.

Aretxabaletako Hirugarren Mundu Taldea

Behar hainbat paperontzi dago Arrasaten? Erabiltzen dituzu?



**Miguel Dominguez
(Jubilatua)**

Paperontziei dagokienez Arrasate ez dago gaizki, okerragoa da aparkalekuen arazoa. Ez dut erabili beharrik izaten.



**Ines Borrego
(Etxekoandrea)**

Gehienak izorratuta daude, beraz... Erabiltzen ditut eta alabari ere erabiltzeko direla erakusten saiatzen naiz



**Oren Torices
(Etxean)**

Ez, ez dago asko. Arrasaten zikinkeria ugari dago. Inguruan edukiaz gero, erabiltzen saiatzen naiz, ez zait gustatzen gauzak lurrera botatzerik.




**Juan Carlos Fernandez
(Langilea)**

Ez dakit, baina baietz iruditzen zait. Jendeak erabiltzen ikasiko balu nahiko dau dela uste dut; nik erabiltzen ditut.

LENIZ

AUTO ESKOLA



GIDA-BAIMEN GUZTIAK ZURE ESKU!

ARRASATE - ESKORATZA

MemesA

79 42 22

KOPIOTXOA

Fotokopiak

Planu-Erreproduzioak

Enkuadernazioak

Zarugalde 28, Tfnoa: 79 17 82

ARRASATE

**HORTZ-KLINIKA
GIPUZKOA**

**ENDODONTZIA
EZARPENAK
HORTZ ESTETIKA
PROTESI FINKOA
ETA ALDAGARRIA
KIRURGIA
ORTODONTZIA
ODONTOLOGIA OROKORRA**

*Marisa Porta Peña Dk.a
Gabriela Porta Peña Dk.a
Pablo José Mármol Dk.a
ODONTOLOGOAK*

BERGARA

*Simon Arrieta Plz. 3,
Tfnoa: 76 38 54*

ZUMARRAGA

*Soraluze 1,
Tfnoa: 72 46 47*

ARRASATE

*Iturriotz 7 bis, behe,
Tfnoa: 79 73 88*

BEHARREZKO TELEFONOAK

ERITETXEAK

Arrasateko Eskualde-Ospit.	79 53 00
Igualatorria	79 05 00
Santa Agedako Ospitalea	
(gizonak)	79 39 00
(emakumeak)	79 44 11
Buru osasunerako zentrua	79 90 11

GURUTZE GORRIA

Bergara	76 55 76
---------------	----------

DYA

Antzuola	76 62 91
----------------	----------

ANBULATORIOAK

Arrasate (Especialista)	77 12 64
(Txanda hartzeko)	77 03 46
Oñati	78 08 52
Eskoriatza	79 98 58
Aretxabaleta	79 74 58
Aramaio	(945) 45 51 16

ANBULANTZIAK

Gipuzkoako ambulanziaz	45 87 44
------------------------------	----------

UDALTZAINGOA

Oñati	78 04 11
Bergara	76 14 69
Arrasate	79 14 39
Aretxabaleta	79 10 52
Eskoriatza	79 03 22

ERTZAINZA

Arrasate	79 71 99
----------------	----------

SUHILTZAILAK

Udal taldea	79 09 00
Udal taldeko suhiltzaile burua	79 20 72
Zubillagako Eskualde-Parkea	78 28 00

MATXURAK

Urak (udal zerbitzua)	79 09 00
Elektrizitatea (iberduero)	79 05 81
Gasa	900 40 05 23
.....	79 78 44
.....	79 76 78

GARRAIOAK

Taxiak	79 12 22
P.E.S.A.	79 14 19

HIRUGARREN ADINARENZAKO ZENTRUAK


Iturbide Egoitza	79 72 11
Abaroa jubilatuen egoitza	79 81 57

KONTSUMITZAILEARENZAKO INFORMAZIOA

Deba Garaiko Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Elkarte	79 87 77
KIUB-OMIC	79 51 55

MONTEARRONGO LIBURUTEGIA

Monterron	77 01 05
-----------------	----------



15 OSTIRALA

• • •

- Zinea: Alai. "Mo Better Blues", 7 eta 9.30etan.
- Amaia. "Una llama en mi corazón", 10.30etan.
- Novedades: "El poder de un Dios", 10.30etan.
- Goardiako farmazia:-
- Egunez: Corcuera, Musakola.
- Gauez: Guallar.

16 LARUNBATA

• • •

- Zinea: Alai. "Aracnofobia", 5, 7.30 eta 10.30etan.
- Novedades: "Nikita", 5 eta 7.30etan.
- Antzerkia: Amaia. "Jacques y su amo", Bederen 1 antzerki taldearekin, gaueko 10.30etan.
- Goardiako farmazia: Irizar, Erguin.

17 IGANDEA

• • •

- Zinea: Alai: "Aracnofobia", 5, 7.30 eta 10.30etan.
- Novedades: "El poder de un Dios", 5, 7.30 eta 10.30etan.
- Mendi irteera, "Bidania-Ernio-Asteasu", goizeko 7etan.
- Goardiako farmazia: Amezua, Santamaina.

18 ASTELEHENA

• • •

- Zinea: Alai: "Aracnofobia", 7 eta 9.30etan.
- Novedades: "El poder de un Dios", 7.30etan.
- Elikadura eta teknologia berrien ihardunaldiak: "Elikagaiak gordetzeko era berriak", Monterronen arratsaldeko 3.30etan.
- Goardiako farmazia: Aurora Ruiz, Maala.

19 ASTEARTEA

• • •

- Zinea: Alai. "Aracnofobia", 7

- eta 9.30etan.
- Elikadura eta teknologia berrien ihardunaldiak: "2000. urteko janaria", Monterronen arratsaldeko 3.30etan.
- Goardiako farmazia: Morales, San Andres.

20 ASTEAZKENA

• • •

- "Haratuzteak 91" Argazki Rallyko sari banaketa eta erakusketaren hasiera, Monterronen arratsaldeko 7etan.
- Elikadura eta teknologia berrien ihardunaldiak: "Mikrouhinezko labeen prestaketa", Monterronen arratsaldeko 3.30etan.
- Goardiako farmazia: Azkoaga, Ferrerías.

21 OSTEGUNA

• • •

- Elikadura eta teknologia berrien ihardunaldiak: "Higienea, elikagaiak eskuz erabiltzean", Monterronen arratsaldeko 3.30etan.
- Goardiako farmazia: Español, Iturriotz.

Kirol Agenda

FUTBOLA

• • •

Atxabalpe ondoko futbol zelaian, emakumezkoen futbola, Arrasate eta Aretxabaleta taldeen arteko partidua, igandean arratsaldeko 4.15etan.

FUTBITOA

• • •

- Zaldibarko futbito txapelketaren barne 12 partidua, larunbat eta igandea bitartean.

PILOTA

• • •

- Gipuzkoako klubaren arteko txapelketako norgehiagoka Arrasate eta Hondarribiaren artean. Larunbatean, goizeko 10.30etan Musakolan.

Ikastaroak

• Zuzenbide prozesala: Zibila eta penala

Bergarako UNEDek antolatuturik, 70 ikastordutako ikastaroari emango zaio hasiera martxoaren 4ean, apirilaren 30a bitartean. Eskolak astelehen eta ostegunetan emango dira, arratsaldeko 5etatik 8ak arte. Ikastaroan esku hartu ahal izateko Zuzenbidean lizentziatua edo Dekanoaren baimena duen 5. mailako ikaslea izan behar da. Hiru argazki eta lizentziaturaren kopia, nahiz aipatutako baimena aurkeztu beharko dira izena emateko orduan. UNEDeko 5. mailako ikasleek 15.000 pta ordaindu beharko dituzte, eta gainerakoek 20.000. Guztira 35 ikasle baino ez dira hartuko, izena emandako ordena berean eta epea otsailaren 13tik 23ra bitartekoa izango da, UNEDeko bulegoetan bertan edo 76 13 42 - 76 13 43 telefonoetan.

Egurra lantzea

Aretxabaletako Beinke Kultur elkarteak Egurra Lantzen ikastaroa antolatu du, funtsezko tekniketarik hasita, 40-50 orduko iraupenaz, Leintz Lanbide Ikastegian. Izenematea otsailaren 20aren aurretik egin daiteke Beinkeko lekuan edo 77 09 70 telefonora hots eginez.

Ikastaroaren ordutegia eta gainerako xehetasunak otsailaren 20an arratsaldeko 7etan izango den bileran jarriko dira, komenentzien arabera. Ikastaroan parte hartzea 1.000 pta kostako da.

Eskulanak


• Emakumeen Asanbladak martxoaren 8aren inguruko

1991ko otsailak 15

Bederen 1
antzerki taldeak
aurkezten du:


JACQUES Y SU AMO

Milan Kunderaren komedia



- Otsailak 16, larunbata
- Gaueko 10.30etan
- Amaia antzokian
- Sarrera: 500 pta.

Gazte txartelarekin 300 pta.



ANTZERKIA

Jacques y su amo

Milan Kunderaren antzerkilana taularatuko du asteburu honetan Arrasaten *Bederen 1* taide donostiarrak, obraren gaztelarazko bertsioan. Denis Dideroten "Jacques le fataliste et son maitre" lanean oinarritutako antzerki obrak ilustrazio garaiko Kixote eta Sancho aurkezten dizkigu, nobela garai-kidearen eredueta bat. Kunderaren berrantolatetarik enziklopedista frantziarraren nobela-jolasa ezentziatu eta kondentsatu egiten du egungo ikuslearentzat erosoago gerta dadin. Fikzioak sortzeko gizakiak berez duen beharrea sartu nahi dute antzezieek ikuslea, inguruan daukagun mundua hobeto ezagutzeko lagungarri gertatuko zaigulakoan.

Jacquesek eta bere nagusiak euren pena maitasunezko eta erotikoen laburpena egingo digute antzerkian zehar, heziketa sentimental erromantikoaren aurka joanez. Paradoxa, anbiguotasuna eta gizarteko itxurakeria ageri-agerian.

ekintzetarako emakumeek egindako eskulanen erakusketak egingo da san Juanen, otsailaren 21etik 28ra bitartean. Lanen bat erakusketan jarri nahi duena denboraz dabil oraindik, eta otsailaren 19aren aurretik eraman Asanbladako lokalera edo eman taldekoren bati.



Erakusketak

• Argazkia

Haratuzteetako argazki lehiaketa aurkeztutako 80 lagun 600 argazkiekin erakusketak egingo da otsailaren 20tik 28ra bitartean Monterronen, eta sari banaketa ere otsailaren 20an izango da, arratsaldeko 7etan.

Ekologia

Zain Dezagun Urkulu Batzordeak antolatuturik, ibilaldia izango da igandean, goizeko 11etan Aretxabaletako AZBE-

ko geltokitik irtenda Urkuluraino, Otalora jauregiaren ondoan Lan Kide Aurrezkiak egin nahi duen etxearengatik protesta egiteko

Mendia

• Gaur arratsaldeko 7.30etatik aurrera Zaraia zinemaren, Murruxiko elkarteak antolatzen duen Felix eta Alberto Ifurrategik Pumori mendira egin zuten igoera ikusteko aukera izango da, aipatutako ordurako diapositiba emanaldia iragartzen da eta.

Bidaia

Gazte batzordeak Parisera bidaia antolatu du martxoaren 27tik apirilaren 1era, hiriburu hartan egingo den AC/DC taldearen kontzertua ikustera joateko. Bidaia literadun autobusetan egingo da, bertan lo eginaz, eta 12.900 pta kostako da. Janaria norbere kontu. Hiria eta inguruko museoak ere bisitatuko dira.



Kontzerturako sarrera, 3.300 pta. kostako da, bidaia-aren prezioetik kanpo.

Gazte Zerbitzua bera arduratu da txartelak lortzeaz. Langabetuentzat deskontuak ere izango dira. Izenematea Gazte Informazio Bulegoan egin daiteke datorren astetik aurrera

“.....
Hezkuntzari dagokionez zehaztasun historikorik eza nabarmen uzten duzu (...) zure zutabeen, honako hau esatean: ‘Eta gainera aurretik ere egon zen benetako Gobernu kolorebakarra, garairik luzeenean orain kastellanoparlanteen astindu legez aurkeztu nahi duenaren lehendakaritzapean, eta ez zen ezer gertatu...’

Memoria freskatze aldera, Garaikoetxearen gidaritzapeko Gobernu kolorebakar hartan Etxenike Jauna zela Hezkuntza Sailburua eta Arrasateko alkate Ardanza jauna zela, honakook gertatu zirela gogora araziko dizut:

“84-85 ikasturtean Arrasateko El Ferial eskola publikoaren eraikin osoa ikastolarentzat izateko agindua eman zuen Administrazioak, aurretiaz eskola erdia kenduta izan arren. Era honetan alde batera utzi zuten aipatutako eskolako ikaslegoa. Eta batzuei emateko beste batzuei kentzea gaizki badago, are txarragoa da erabilitako bidea. Eskola asaltatzea eta egunetan zehar hartuta edukitzea agindu zitzaion Ertzaintzari, metodo eragingarrien bidez ikasleak kanporatuz. (Frankismoko garairik txarrean ere ez zuen Poliziak ikastetxerik hartu)”.

(L.I.F.-k Deiako gutunetan Jose Felix Azurmendiri erantzunez)

“.....
Baina oraingoa urrezko txapa bat itsatsi beharrean gaude Euskobarçako atezain den Zubizarretari. Kopa, liga eta diren guztiak merezi ditu. Real Madriden kontra pozik galduko lukeela edo antzeko zerbait, idatzi du asteroko batean, gerra guztiak bukatzeagatik. Zuhurra atera zaigu mutila”.

(Ramon Etxezarreta idazleak DVren Zabaliken)

Zertan da euskararen Hitzarmena?

Hitzarmenaren jarraipenak momentu honetan fase bi ditu.

Sinatzaileen artean sortzen diren harremanen zainketa eta behaketa lehenengoa litzateke, beraien datuak atera ahal izateko eta hutsik balego, nork eta zergatik egiten dituen jakin dezagun. Iazko datu bilketa egin ondoren, jabetu ahal izan gara hitzarmena %80an bete dela. Horrez gain, idatzizko komunikazioak egiteko trebakuntz ikastaroa antolatu genuen hitzarleonean eta izan genuen arrakastagatik aurtengoan ere ikastaro saioari helduko diogu.

Bigarren eginkizuna, gure egitasmoaren partaidetza gehitzearena da. Oraindik ere euskararen presentzia leku askotan areago daitekeen eritzizkoak garenez, gure Hitzarmenaren berri ematen diegu Arrasateko erakundeei. Harreman horietan, gure proposamenarekiko erabateko adostasuna lortzen dugu ideologikoki eta emotiboki, baina gehienetan praktikan jartzeko asmoa ere azaltzen badigute, badaude besteren batzuk pragmatikoki heldu ezin dienak. Kasu hauetan, ezin dugu pentsa ezetza adierazi digutenek euskararen alde ezer egiteko asmorik ez dutenik. Alderantziz, Hitzarmenak sor dezakeen dinamikarengatik, ahalegindu egiten dira euskarari bere garrantzia ematen, nahiz eta hitzarleen zerrendan azaldu ezina izan.

Euskarak, denon laguntzaren beharra du, bai Hitzarmena bete dezaketenean, bai bete ezin dutenean ere. Nire agurra Hitzarmena sinatu duten erakunde guztiei.

Jabier Ozaeta,
Hitzarmenaren teknikaria.



Parques y Jardines

PARKE ETA LORATEGIEN
SORKUNTZA

LORAZAINTZAKO
MANTENIMENDUA ORO HAR

LANDARE-BIRSORKUNTZA
HIDROEREINTZAZ



Casa-Torre kalea. Tfnoa:94-681 90 82 ABADIÑO (BIZKAIA)



Oñati

• Gipuzkoako Kontsumitzaileen Elkarteak eta Udalak sinatutako akordioaren ondorioz, Kontsumitzaileen Bulegoko ardurak Gipuzkoako Kontsumitzaileen Elkartearen gain gelditzen dira. Bulegoa, Kalebarria kalean dago, eta bere helburu nagusia kontsumitzaileen eskubideei buruzko informazioa ematea izango litza-teke eta eskubide horiek errespetatzen ez direnean kontsumitzailearen aldeko lana egin.

Kontsumitzaileen Bulegoa Aualde, bailarako kontsumitzaile elkartearen sartu da.



Aretxabaleta

• Lan Kide Aurrezkiak Azatza auzoan, Otolara Jauregiaren alboan egin nahi duen eraikin berria dela eta, Zain Dezagun Urkulu Batzordeak antolatutako prentsaurrekoa izan zen asteazkenean Aretxabaletan. Argi utzi nahi izan zuten arazo hau baino lehenago sortu zela Batzordea eta gai ezbedinen inguruan sortu ere. Bailarako talde ekologistak ez ezik, auzoko baserritarrak ere batzordekide dira. Batzordekideen esanetan, auzi honetan argi geratzen da Lan Kide Aurrezkiaren influentzia eta proiektua interes sozialeko bezala moztu duela. Horrez gain, Arau Ordezkatzaileek esaten dutenaren aurka etxea eraikitzeko baimena ematea prezedentea jartzea litzatekela argi utzi nahi dute batzordekideek, argudiatzen diren arrazoiak indargabeak direla eta eskaini nahi den zerbitzurako *Iruikoa* baserria ere erabil dezakeela esaten.

Joan den astean alde biek egindako bileran ez zen akordio-rik lortu, harrera ona izan zen arren Lan Kide Aurrezkiak ez zuen eta atzera egiteko asmorik azaldu. Igande goizeko 11etan ibilaldia egingo da Azbetik Urkulura, protesta gisa.

Bergara

• Erakusketa bitxia ikusteko aukera izango dute bergarrek datorren martxoaren 3a arte kultur etxeko erakusgelan, "trenaren museo" hain zuzen. Trenaren historiari buruzko informazioa aurkitzeaz gain, hamabi metro karratu dituen maketa ikusi ahal izango da, bertan hamabi tren mugitzen direlarik. Erakusketa, arratsaldeko 5etatik 8etara bitartean zabalik egongo da.

• Udala hobekuntza ugari egitekotan da kiroldegian: squash pista berriak, gimnasioa, futbito eta tenis pista kanpokaldean, eta bi aldagela berri. Guztira, hobekuntza horregatik Udalak 70 milioi pezeta inguru ordaindu beharko ditu.

Bestalde, kiroldegiko zolua, hezetasunaren ondorioz oso egoera eskasean aurkitzen da eta Udala, eman daitezkeen irtenbideak ikusteko egoera ikertzen ari da. Bukatzeko, aipagarria da skate pista eginda dagoela, eta erabilgarria izateko bakarrik egurra lantzea falta dela.

BITXIEKIN MAITEMINDUAK

Bitxitegia

Erlojutegia

NAROKI

Erdiko kale, 23 Tel. 79 20 47 ARRASATE

SANIDES

Parasitoei aurre egiteko
Intsektu narraztiak akabatzeke,
arratolak barne

URTEBETEKO GARANTIA

Erguin kalea 11, Bis. 3. ezk. Tfnoa: 79 22 81

MARTINEZ
aroztegia

Sukaldetan
neurri guztietako
aitzariak

Araba Etorbidea, 13
Tfnoak: 79 22 81/ 79 18 41



□ Gestorak

Arrasateko Amnistiaren aldeko gestorek, komunikatu bat kaleratu dute. Berorren bidez, torturari buruz gogoeta egitera gonbidatu ditu herritarrak, "Joseba Arregi torturatu eta hil zela 10. urteurrena bete den honetan PSOeren Gobernuak eguneroko dituen tortura fisiko zein psikikoak salatu nahi ditugu komunikatu honen bidez, preso eta atxilotu arrasatearrek ere torturok jasaten dituztelarik".

□ Hotela

Arrasate eta inguruko herriek kooperatiba eta gainerako industrien erakartzen duten bisitari pilari, turismo industrialia deituari, orain artean eskaini ez dioten zerbitzua betetzeko hotel bat irekiko da Biteri etorbidean, eta dagoeneko hasita daude lanak. 12 logelatan banatutako 22 oheren bidez, nolabait aiseko du zerbitzu pribatu horrek orain arte kanpoko herrietara edo hiri-bururik hurbiletara joan beharra. Oraingo behintzat ez zaio ikusten erakunde publikoen aldetik irtenbidea emateko modurik, eta ekimen pribatuari bultzada emateko aukera ikusten da garbien.

□ Igerilekua

Igerilekua itxi egingo dute otsailaren 25etik martxoaren 3a bitartean, aurten birritan -otsailean eta abuztuan- egiten den ur aldaketa eta garbiketa dela eta. Horretaz aparte, uraren depuraziorako orain artean erabiltzen zen sistema aldatzea agindu dio Osakidetzak Kiroldegiko zuzendaritzari, piszina bakoitzarentzat bere garbitze sistema ezartzea eta uretan bildutako zikinak kanporatzeko ere beste modu bat bilatzea gomendatzen. Udalak enpresa ezberdinei eskaintza eta aukera ezberdinak eskatu dizkie.

Txandaka

GERRAZ, ZER?

Buruz eta bihotzez osasuntsu samar dagoen edonork bezalaxe, inoiz hasi beharko ez zukeen gerra hau lehenbailehen amaitzea nahi dudala.

Bestalde, ez dakigula ezer asko gerraz. Informazioaren galaxian omen gaude... lehen gerra telebisatua izango omen zen... Bai, bai! Oso gordin gogorarazi zaigu informazioa botere

dela, hau gutxi batzuen esku dagoela eta pribilegiatu horien kontrol-mahaitik eroritako apurrak jango ditugula zuk eta nik.

Tele-ikuskituz hutsal edo bideojoko bihurtu diguten gerra honetan, oraingoz askoz gehiago dakigu (eta errukituagoa gaude) marea beltzak zikindutako txori koitaduei buruz, ziur aski Iraken burmuinik edo errairik gabe geratuko ziren milaka gizon eta emakumei buruz baino.

Gainerantzean, niri lotsa pixka bat ematen dit gure gobernuak bapatean justizi egarri asegaitza sentitzeak inbaditutako Kuwait askatzeko (eta ez diot Saddam aingerutxo denik, baina ez orain eta ez lehen, galdegin bestela kurdoei). Kontua da nork bere etxean baduela zer konpondu eta ez dagoela garbi gure gobernu ongileek horrelako askapen-irrikarik izango zuten urre beltzaren iturriak han ez baleude.

Eta oso lotsatu nintzen gerra hasi zen egunean munduko Boltsa guztiak izan zuten gorakada izugarriagatik. Benetan pornografikoa!

Eta lotsa ere ematen dit ez delako Saddam Hussein bakarrik ari Allah-ren



Iñaki Mendiguren (*)

babespean Gerra Santura dei egiten. Ikusi ditugu Mayor eta Bush ere otoi-tzean beren soldaduentzako Jainkoari garaipen eske. Ai ene!

Beste lotsa pixka bat ematen dit herrialde demokratiko eta zibilizatuotan dugun gaitasunak, gauetik goizera, interesen arabera, lagunak diktadore bihurtzeko eta diktadoreak

lagun (Irak eta Siriako jarrerak, adibide).

Eta lotsatzekoa ere bada, gerragintzan erakusten ari garen aurrerakuntza miresgarria. Zer mobilizazio-eta antolamendu-gaitasuna! Zer sofistikazio tekniko eta zehaztasun bazterrak jo eta txikitzeko. Espero dezagun gerra ostean izango dugula sormen, irudimen eta indar honen laurdenik diktadore arazoak konpondu eta mundu hobea eraikitzeko.

Lotsatzekoa den bezala lehen Irak armaz betetzen negozioa egin zutenek, orain arma horiek suntsitzen berriz negozioa egitea, eta gero berberoriek arma berriak saltzen hirugarren aldiriz negozioa egitea.

Zer konponbide ote dagoen orain? Begira, osaba zahar batek esaten zuen general eta estrategiek joan behar balute frentera ez litzatekeela gerrarik izango. Oraingo kontzientzi eragozpen, intsumisio edo desertzioaren bertsio zaharra zen harena. Beraz, zergatik ez jarri aurrez aurre Bush eta Saddam, biak bakarrik, aspaldiko "duelo" haietako baten didez arazoa konpon dezaten? Bakea seguru! Baina lukainkak besteen haragiaz egiten diren bitartean...

(*) *Idazlea eta itzultzailea*

KiDE

Paperdenda eta jostailudenda

Erguin 5, Tfnoa: 79 25 77 ARRASATE

LILURA

-k zeure moda diseinatu eta sortzen laguntzen dizu

Zerkaosteta 5, behea. Tfnoa: 79 69 72 ARRASATE



Saltzaileek hainbat protesta ekintza burutu dute

Azokarako irtenbide bila

Udala eta saltzaileen arteko bilera atzeratua

Azokako postuen subastaren inguruan Udalarekin duten auziari irtenbidea emateko Udalak eginiko azken proposamena baztergarritzat jo dute azokako saltzaileek. Arrazioen artean, diru kopurua altuegia eta bi urteko adjudikazio epea laburregia izatea aipatu dituzte, proposamen berriak erosleentzat salneurrien igoera eta saltzaileentzat egonkortasunik eza ekarriko litzatekeela esanez. Era berean, tasen igoera beharrezkoa dela onartzen dutela eta beti ere negoziatorako irekita daudela adierazi dute, eta Udalak bere joera birplanteatzea espero dutela. Arrasatera etortzen diren saltzaileen asanbladaren erabakiak Gipuzkoako saltzaile ibiltarien elkartearen oneritzia jaso du.

Alkateak eta azokaren gestiorako teknikariak, Muruamendiarazek, azokarako adjudikazioa urtebeterako izan beharrean urte birako izateko pro-

posamena luzatu zieten saltzaileei, eta urtetan zehar Arrasatera etortzen diren saltzaileen antzinatasuna kontuan hartzea. Garbitasunerako zerbait kobratu arren, metro karratuko kobratu asmo zen tasa 8.000 tik 5.000 ptara jaitsiko litzatekeela adierazi zieten azken bileran. Azokakoek ez dute proposamen hori onartu, Udaleko iturriek, halere, adostasunerari isteko ahalegin handia egin dela erizten diote. Udalak ezinbesteko jotzen du konkurtsoa egitea. Udalari erantzunik emateke komunikabideetara jotzeari ez deritzote jokabide zuzena udal ordezkariak.

Bien bitartean, hil honen 20ra atzeratu da ostegun honetan alde bien artean egitekoa zen bilera, Udaleko ordezkarien esanetan erdibiderik aurkitzeko egingo litzatekeen azkena. Hilaren 20an arratsaldeko Setan bilduko dira saltzaileak, beraz, Alkatearekin.

Usteak uste


Baliteke datorren urtean Haratuzte desfilekatarik ez egotea. Zenbait irakaslek ikasleak nekatu egiten direla omen dio, beste zenbaiten ez duela lan 1'erdietatik aurrera zertan lanik egin, bada umeak auzoetatik kalealdera ekartzea gogorra dela dioena, eta desfileketa horretan ikastola batzuei haize handiagoa ematen zaiela dionik ez da falta.

Horiek horrela, aurten esaterako, S. Andres, Erguin eta Musakolako eskoletako ume eta irakasleek ez dute astearteko desfileketan parterik hartu. SDUCeko antolatzaileak harritu samar zeuden, datorren urtean zer gertatuko ote den jakin barik. Eurentzat garbi dago eskola eta ikastolen eskuhartze barik ez dagoela horrelako desfilek eraterik. Garbi ez dutena hau da, ez dituzten eskolen arteko lehia eta ezinikusiak estaltzen.

Haratuzte desfileketak orain arte egin den bezala ez baditu batzuen nahiak asetzen, berraztertu egin beharko da. Akaso auzoka antolatuta emaitza hobekak emango litzateke. Beharbada dena arratsaldean egin barik goiza eta arratsaldean aprobezia litzateke, ez dakit. Orain arteko formulak balio ez badu, beste bat bilatu behar, baina eritzibatez bada, hobeto.

Eta ondo egindakoak aipamena merezi duenez, nire zorionik beroena aurtengo Play back jaieldiaren antolatzaile eta parte hartzaile guztiei, lan bikaina egin zuten eta.

Joxe Aranzabal



Mila hitz baino
argiagor da
irudi bat



GUBI ILEAPAINDEGIA

Otalora 5, 1. A, Tfnoa: 79 12 74



SAMEGO
GARBIKETAK

Uriburu 24,
Tfnoa: 79 70 39
ARRASATE



Oraindik ez dira egin azterketa guztiak

Ospitalean kontu garbirik ez Oposaketetako zerrendak kendu astean

Arrasateko Eskualde Ospitalean eta Anbulategian kendu egin dituzte Oskidetzak Lan eskaintza publikoan egindako azterketen emaitzekin joan den astean ateratako zerrendak. Zerrendok kentzeko agindua Eusko Jaurlaritzaren fax bidez iritsi zen, antza denez, eta komunikabideetako iragarkietan esaten denaren arabera, deialdiaren oinarriak bete ez direlako.

Gogora dezagun oposaketen lehen zerrenda horretan alderdi sozialistako kide ugariaren izenak agertu zirela esanez eta puntuazioekiko desadostasuna azalduaz ELA eta LAB sindikatuek sa-

laketa egin zutela. Egunotan, salaketa berak eginez kartel ugari agertu dira Ospitalean zein Anbulategian, eta langilegoaren artean giro txarra eta hase-rreak nabaritu dira. Zuzendaritzako iturriek, oposaketak orain zein fasetan dauden eta zerrendetan zein izen agertu diren ez dakitela adierazi dute, inpas honetan zuzendaritzak zer esanik ez duela esanez. Hala ere, baieztatu egin digute azterketok prestatzen ari zirenentzat hainbat sindikatu eta alderdik ikastaro bereziak antolatu dituela zioen zurrumurrua, eta Arrasateko askok Gasteizen prestatu dituela azterketok.

Argazki lehiaketa

Haratuzteetarako ASAk antolatu duen argazki lehiaketa erabat arrakastatsua izan da, eta guztira 80 lagunek hartu dute parte. Iaz 16 izan ziren parte hartu zutenak, eta aurrekontua ere motz geratu zaie antolatzaileei. Partaidetza handi horren arrazoen artean, gai librea izatea, partaidetzarako malgutasuna eta argazkilariarentzat gastuak libre izatea aipatu behar. Datorren astean antolatu den erakusketan 600 argazki inguru izango dira.

Hilerria

Aldaiko udal hilerrian martxoaren 4ean hasiko dira 1 zenbakidun taldeko gorpuen hondarrak hilobietatik ateratzen, eta Udaletxeko iragarki taulan ageri dira gune horretan lurperatutakoen izen zerrendak. Zerrendako norbaiten hondarrak jaso ahal izateko, hilerriko bulgoetara jo behar da otsailaren 20tik aurrera, goizeko 10etatik 11etara eta 4etatik 5.30etara arratsaldez.



JAIOTZAK

Eguren Retolaza *Urko*. Urtarrilaren 30ean.
Hernandez Jurado *Josu Endika*.
Otsailaren 2an
Belastegi Axpe *Olatz*, 8an.
Bergara Markaide *Ianine*, 9an.

EZKONTZAK

Jesus Martinez & Amaia Mujika,
otsailaren 9an, zibilez.

SEGURTASUN-INJINERUTZA



Zure denda, lantegia, etxea, etab. **BABESTEN** ditugu **LAPURKETA** eta **SUTEEN** aurka
Legutianoko atea 35, Tfnoak: 26 34 77 eta 26 33 44 GASTEIZ



Kontzesifio 2,
Tfnoa: 79 14 06
ARRASATE

beatriz
oinetakoak eta
poltsak

Erdiko kale 11, Tfnoa: 79 14 33
ARRASATE



Argazkia: Jabi Ozaeta

A

ste honetan ekin berri diogun argazki sailari, *Fotoberri* deitzea pentsatu dugu arrazoi askorengatik:
- Erretratu saltsatsua aterako ditugulako.

- Edozein gai aterako dugulako, Arrasaterekin zer ikusi badu.

- Edozeinek bidalitako erretratuak argitaratuko ditugulako.

Aste honetakoan ikus daiteke, Roneo zaharra botatzeko zer nolako makineria modernoa erabili zuen eraikuntza enpresak.

X. Gorosarri eta M.L. Trojaola doktoreak

Mediku espezialistak erreumatologian

Titulu nazional frantsesa (Lyon-eko Unibertzitatekoa)

HEZUR, MUSKULU, ZURDA ETA GILTZADURETAKO
GAIXOTASUNAK.

Ornoterapia: manipulazioa, trakzioak...

Akupuntura: erreumatologiari aplikatua.

Osteoporosia: diagnostikoa, prebentzioa.
tratamendua.

Lagun Aro / Iquimesa / Diputaziokoa / Igualarorio mediko-kirurgikoa eta
Partikularrak

Zaldibar 1, 1. Tfnoa: 77 00 40 ARRASATE

**FELIPE
MADINA
ZURAK**

Zarugalde 40, Arrasate 79 13 78



HAURTOKOÀ

Arrasate Pasealekua 4,
Tfnoa: 79 14 90 ARRASATE



Iñaki Gurrutxaga

Harritzi eta Txomin Arrieta

Urkuluko Ahateak balleta dantzatzen

ikustean jendeak ahaztu egin zituen Barishnikov eta Ludmilla Dantzareva bezalako divoak. Izan ere Harritziren malgutasuna eta Txominen dotorezia harritzekoak izan bait ziren.



Hara, Marta Sanchez! Ez, ez zen Arrasatekoan Marta izan, Manta Kantxas baino. Hilehoriak jaialdian izan ziren guztien artean giroa berotu zuen. Ezin zen falta, noski gerrari buruzko aipamenik eta Golkoari abestu zion, soldadu gaisoei kantatu beharrean.



Play back jaialdiaren izarretako bat **Iñigo Txintxurreta** izan zen. Plaza gizona izateaz gain, ahots ederra duela erakutsi zuen behin eta berriro. Julio Iglesiasenak kantatzen laguntza ederra izan zuen atzeko hirukoan eta baita SDUCen orkestra paregabearen. Denek txalo zaparrada izugarria jaso zuten.

GOROSTI
Jatetxea

Arimazuri plaza Tfnoa: 77 06 07 ARRASATE


LOREA

Oinetakoak
eta poltsak


Paz 9, Tfnoa: 25 66 32
GASTEIZ

ARAMAIO
okindegia

Maisu Guridi 3,
Tfnoa: 79 36 46



Mailuki jantzi zituen amak bi poxpolintxo hauek, dotore asko jantzi ere. Ogitartekoa jan eta tronpeta joaz ikusi zuten SUDCek antolatutako desfilea. "Ikastolan hasten naizenean neuk ere irtengo dut", pentsatzen ote duten ere...



Gotzaia eta pirata ez dira sarri elkarrekin ibiliko, nahiz eta Jon eta Genaro lagunak izan. Baina Haratuzte gauean dena da posible, eta martitzenean, sardina lurperatu ondoren tabernetan bildu ziren ospakizun triste horretara hurbildutakoak. Hurrengo urtera arte!, diotela dirudi.



Ihauteri gaua sorgin gaua izan ohi da, eta argazkian jaso genituen hiru lekuko, sorgin on eta alaiak inolaz ere. Hiru hauetaz gain sorgin ugari eta deabru asko ikusi dugu aurtengo karnabaletan Mondragoen. Ez da originalagia baina bai alai.

100 SERIEKO ROVER BERRIA

ROVER HANDIEN INDAR GUZTIA.


Miresgarria, 100 serieko Rover berria. Txikia, baina Rover handien indar guztiarekin. Teknologiarik aurreratuen du bere K serieko motore berrian -16V GTi-an- aleazio arinez eginako 95CVko indarra eman liezaiokeena.

Eta zuri, eskatu nahi diozun guztia. Zeu bezain aparta du bere ekipamendua.

Ausartu eta helduiozu. Rover berria da 100 x100. *



100 SERIEKO ROVER BERRIA
ROVER 100 x 100




* Azken salneurri gomendatua, BEZ eta garrato-gastuak barne. Ekipamendua: Erloju digitala. Atzeranzko isplua eskuinean ere. Bira-kontadorea. Ixte zentralizatua. Aleaziozko lllantak. Aurreko lehtoen jasogailu elektrikoak. Atzean spoiler-a. Atzean ere segurtasun-uhalak. Esarleku deportiboak. Dolakuntza lumbarrak. Atzeko eserleku tolesgarria 60/40.





lazko urtean ezkondu ziren bi lagun hauen argazkia ere iritsi zaigu, berandu baina seguru. **Andoni Gay** eta **Monse Igartua** dira. San Fermin eguna aukeratu zuten, egun seinatua benetan seinatua izan zedin. Arantzazuko Santutegian emandako hitzaren ondoren San Balentin ospatuko al zuten aste honetan!

Aretxabaletako **Kurtzebarri Eskolako 6. mailako** neska-mutilak dira argazkiko horiek. Eskolan aldizkarien mundua lantzen ari dira, eurak ere kazetari bihurtuta nonbait, eta gure lana ikusi bakarrik ez, galdera ugari egin ere egin ziguten. Eskerrik asko bisitarengatik!



Otsailaren 25a bitartean eskola bihurturik dago Kirolddegiko kantxa. Arrasateko eskola guztietako 5. eta 6. mailetako ikasleek bide segurtasunari buruz ikasten ari dira, Ertzainen gidaritzapean. Motorrean jarrita ikasten dute kalean nola ibili behar den, eta ertzainen zaratak ere entzun behar izan dituzte.

LASAGABASTER

JANTZIDENDA

Bertan izango duzu beti modako gauzarik onenen aukera zabalena

Zerkaosteta kalea 1 eta 2, Tfnoak: 79 27 27 / 79 13 55 ARRASATE



txutxumutxuak


Izen
PROPIOAK

● **Arantxa Oruna**, 35, mondragoetarra. Martin Auzmendi EEko Lan Sailburu berriaren idazkaria izango da Lakuan. Arantxak La Merced ikastetxean ikasi zuen Batxilergoa. Enpresa zientzien 3. mailan ari da UNEDen. Orain arte Elorrioko Eroskin egin du lan, aurrekotuen administrazioan.

● **Iñaki Garro**, 27, atxabaltarra. Lan Kide Aurrezkiko euskara zerbitzu buru izendatu berri dute. Iñakik Euskal Filologia ikasketak egin zituen Gasteizko fakultatean eta orain arte Eskola Politeknikoko irakasle izan da. Kirol mailan ere eza-guna da atxabaltarra, Mondran jokatzeko bait du taldeko kapitain.


● **Esther Larrañaga**, 31, arrasatearra. Madrileko Diputatuen Kongresuan Iñazio Oliveri ordezkaturako du aurrerantzean eta Madrilerako ahal izateko uko egin dio Gasteizko Legebiltzarreko postuari. Esther abokatua da eta Enpresen Zuzendaritzako Masterra egin zuen. Gipuzkoako Diputazioko Kultura zuzendaria izan da.

▲
La Merced ikastetxeko ikasleen bisita izan genuen joan den ostiralean. Ez ziren gutxi ere, 4. eta 5. mailakoen artean Arrasate Press eta ATB ikustera etorri ziren, 60 bat lagun talde txikietan banatuta nola lan egiten dugun ikusi eta galdera mordoa egitera. Bukatu ahala alde egiten zuten, argazkirako ezin izan genituen denak harrapatu.



◀ **Iñaki Mondragon**

arrasatearrak jabetxe bikaina du Getarian. **Kanpala** jabetxeko jabeak ikustaldia egin zigen. Aurrerantzean kosta alde horretara otordua egiteko asmotan hurbiltzen den mondragoetarrak izango du, bai, lehenaz gain, nora sartu etxeko moduan etxean baino hobeto jateko!



ERRASTI KRISTALDEGIA


**Plastiko eta burdinazko hodiak
beirina eta kristalak
akzesorioak**

Olarte kalea 47, behea Tfnoak: 79 22 55 79 14 25

ITSASKI

**arrandegia
arrain freskoa
eta jaki izoztuak**

Urbe Auzoa
Arrasate. 79 98 94




Zurgin Kantoi, 2

Tfnoa: 79 20 04

ARRASATE

BONBOIAK



FRUITU LEHORRAK

Otalora 2, ARRASATE

Bideoaren bidez hezitzen

Eskoriatzako Irakasle Eskola. Ate bat zabaldu, bideo eta ordenadore pantailekin topo egiten duzu. Lau lagun pantailen aurrean: bideo tailerrean zaude

Lhardun argialetxea sortu zenetik, alde batetik bideogintzara zuzendua eta bestaldetik liburugintzara, bost urte pasatu dira gutxi gorabehera. Bai liburugintzak eta baita bideogintzak ere, materiale ugari sortarazi dute. Toki arazoak direla eta, ondorengo lerroetan bakarrik bideogintzari buruzko aipamenak aurkitu ahal izango dira.


“Hemen audiobisualen saila sortzeko arrazoia, inguruko irakasleei gaien buruzko materiala ematea izan zen. Materiala, formazioa eta produkzioari begira lantzen da. Laburbilduz, formazioa materialak erabiltzeko ikastaroak ematea izango litzateke, eta produkzioa, gero eskoletan aplika daitezkeen materialak egitea”.

Aurrekoak, Irakasle eskolako bideo tailerrean lana egiten duten lau lagunetarikoa batek esandakohitzak izan dira, bideo tailerraren gorabeherak ezagutzen lagunduko dizkigunarenak, hain zuzen.

Laguntza beharra

Ordu ugari sartzen omen dituzte Majisteritzako bideo tailerreko langileek,

askotan desorduetan gainera. Beharbada horregatik, bideo tailerrari, diru aldetik, errentabilitatea ateratzea oso zaila egiten da. “Diru



Askotan orduz kanpo lan egin behar izaten da


laguntzarik gabe hemengo lana ezingo genuke aurrera eramanez. Jaurlaritzak, euskaraz materiala sortzen dutenentzat EIMA delako proiektua dauka, eta guk hortik jasotzen dugu diru laguntza. Egiten dugunaren arabera ematen digute dirua”.

Normalean zortzi ordu baino gehiago eskatzen dituen lana izateaz gain, bada beste arrazoi bat bideo tailerraren eginkizuna garestitzen duena, alegia, erabiltzen den materialaren kostua. Datu bakar batek aurrekoa egiaztatzeko balio dezake: normalean erabiltzen den kamarak, Betacam sistemakoa, telebistetan erabiltzen den sistema berekoak, zazpi milioi pezeta inguru balio du. Irakurlea harritu bada, ez da bat ere arraroa, idazten duenari ere gauza bera gertatu zitzaien eta.

Grabaketan artxiboa informatizatuta ez bagenu, zoratu egingo ginateteke

Punta-puntako teknologia

Sistemaren aipamenak bideo tailerreko alde teknikoari buruz mintzatzeko balio dezake, eta gertatzen dena horixe da. “Teknika aldetik, ondo hornituta gaudela uste dut. Lehen esan bezala, grabaketak, telebistetan erabiltzen diren bezalako kamararekin egiten ditugu. Egokiena, editaia eta muntaia sistema berean egitea izango litzateke, baina horretarako be-



Balio handiko tresneria dago bideo tailerrean

har diren tresnak oso garestiak dira. Beraz, grabaketa Betacam sisteman egiten dugu, gero editaia egiteko orduan sistemaz aldatzen dugu, eta diskette batean muntaia egin eta gero, Betacam sisteman editatzera bidaltzen dugu. Kalitaterik ez da galtzen”.

Irakasle Eskolako bideo tailerreko hormetako apaletan dauden zinta guztiak ikusirik, ezinbestekoa egiten da artxibategiari buruzko galdera egitea, nolabait ordenatu beharko dituzte eta. “Beno, informatizatuta daukagu guztia, bes-tela zoratu egingo ginateke. Grabazio bat egin ondoren, lehen gauza zinta erreparatzea izaten da: zintan zer

irudi dauden, zenbat irauten duen, zer motatako enfokoa daukan, noiz grabatua den... ahalik eta datu gehien bildu arte. Klabe berezi baten bidez, datu horiek apuntatzen ditugu eta gero ordenadorean sartu. Horrela, zerbait zehatza behar dugunean ordenadoreari gal-detzea besterik ez dago. Hala eta guztiz ere, batzuetan kostatzen zaigu behar ditugun irudiak aurkitzea”.

Didaktikari begira

Pentsadaitekeenez, tresneria eta sistemok hezkuntzari begira erabiltzen dira. Bideoa, hezkuntzan erabilgarria izatekotan 12 produkzio egin ditu Es-

koriatzako Irakasle Eskolako bideo tailerrak. Irakas-kuntzan, batez ere hizkuntzaren irakaskuntzan balio-

garri gerta daitezten bi pertsonaia asmatu dituzte, bata Piti eta bestea Maddi. “Piti, galderak egiten dituen umea izango litzateke, bideotan proposatzen diren lanen arteko bitartekotza egiten duena. Maddi, berriz, haur talde baten barruan kokatzen da, taldeko beste bat izanik abentura berdinetan sartzen da, egoera desberdin ugari lantzen direlarik”.

Pertsonaia horiek agertzen diren bideoez gain, beste sail bat ere irekia du bideo tailerrak, gizarte arloan Euskal Herria eta bere lurraldeak lantzen dituena. Kapitulu bakoitzean, eza-gutu behar den eskualdeari buruzko dokumentala eskainiko da, oinarritzko informazioa emanez; ondoren, argibideak eskaini, eta azkenik, gai monografikoak lantzeko zantzuak.

Etorkizuna lantegietatik

Piti eta Maddiren istorioaz baliatuz lantzen diren gaiak eta eurengandik sortzen den informazioa, nola garrantzitsutzat jotzen ziren irakaskuntzari begira. Euskal Herrian zehar bideo sailari ere garrantzi akademiko bera ematen zitzaion.

Helburua irakaskuntza izanik, irakaskuntza berak ezin bideo tailerrari arnas berri handirik eman, batez ere errentagarritasun jokoan ez duelako zer eginik, eta alde horretatik ez zaio laguntza handirik etorriko. Gidoiak eta doblajeak apartekoak izango dira, baina irakaskuntzak ez du dirurik ematen.

Beraz, bideo tailerrekoek lantegiak aurkitu dituzte, eremu teknologikoetan formaziorako ikastaroak emateko eta, bideoa tresna baliogarria delako.


**AUTO
ESKOLA**

ARRASATE

7etatik 8etara klase teorikoak

Olarte kalea 30, Tfnoa: 79 89 89 ARRASATE


DICCIONARIO DE AUTORIDADES DEL EUSKERA



la 2.000 urte iragan behar izan dira Euskal Herriko historia irauliko duen hiztegia eduki ahal izateko. Zeren eta, zer gertatuko litzaloke Euskarari Hiztegi hau gabe... Eta zer Euskal Herriari Euskararik gabe?

- 9 liburuzki dotore eta, aidi berean, erabilerrazak.
- Marmol berde koloreko zuntz-lamuzko azalak, 24 kilatetako urrez sultan eginak estanzazioekin.
- Landare-hariz jositate pleguak.
- Paper sendoa pixka-pixka bat hezur kolorekoa.
- Fotokoposizioa bi zutabetan egina, tipografia edor eta argiaz eta lau letra-mota ezberdinez testua hobeto irakurri eta ulertu ahal izateko.
- Euskarari buruz sekula egin den lanik handiena, euskal dialektologian aditunik jakintsuenak direnek zuzendua.
- Behar beharrezko lana euskararen azterkularako.

DICCIONARIO ANAIA DE AUTORIDADES DEL EUSKERA



**OBRA BEREHALA
JASO
NAHI BADUZU,
DEITU
94 - 445 46 89
Tfnora.
(ARANTZA)**

**Euskara ikasteko
erabili beharreko obra**

**LASTER PREZIO
IGOERA**

Ernesto Amaia Argitaletxea
Paseo Campo Volatin 24, 4. D-3 48007 BILBO
Tfnoak: 94-445 46 89 eta 446 69 93



Hego haizea

Ustekabean izan bazen ere, larunbat goizean hego haizea Zaldibarko protagonista bihurtu zen.



Beharbada partidu guztietan ez, baina askotan izan zuen eragina hego haizeak. Argazkiak adierazten duenez, jokalariek sarritan aldatu behar izan zuten korrikaldien norabidea.


JMA



LANTEK

Informatika teknikoa

Basabe poligonoa, C 1,
Tfnoa: 79 66 21
ARETXABALETA



ILLARRAMENDI

Geure lantegiak ditugu

Iturriotz 7 bis, Tfnoa: 77 12 71 ARRASATE

JOMA

JOSE MARI GALLASTEGI Y CIA. S.A

Gipuzkoa Etorb. 32,
Tfnoa: 79 16 55 ARRASATE



A taldea

	Partiduak				Golak		Ptak.
	Jokat.	Irab.	Ados	Gald.	Alde	Aurk.	Ttak.
Argi ibili	2	2	0	0	21	4	4
Artzankos	2	1	1	0	9	7	3
Bar Artano	2	1	0	1	12	7	2
Kriskibalda	2	1	0	1	11	9	2
Camerun's	2	1	0	1	5	13	2
Potozorri	2	1	0	1	7	10	2
Autovia patutia	2	0	1	1	6	7	1
Zortzikin nahiko	2	0	0	2	6	20	0



Golfos Persicos. Ezkerretik-eskumara. Zutik: Neka Galan, Karlos Alonso, Candido Fernandez, Jose Luis Mena, Anton del Rey. Makurtuta: Jose Maria Galan, Fernando Ruiz, Carlos Gonzalez, Gregorio Algaba, Victor Fernandez, Miguel Galan.

B taldea


	Partiduak				Golak		Ptak.
	Jokat.	Irab.	Ados	Gald.	Alde	Aurk.	Ttak.
Golfos Persicos	2	2	0	0	6	3	4
Bizkorak	2	1	1	0	4	2	3
Arrasate Kirolak	2	1	1	0	5	4	3
Adelaida	2	0	2	0	13	13	2
Sokoa 600	2	0	1	1	11	12	1
Alperrak-Aldatz	2	0	1	1	6	7	1
Lorategi-Potroak	2	0	1	1	5	7	1
Fosforo's	2	0	1	1	4	6	1



Arrasate Kirolak. Ezkerretik-eskumara. Zutik: German Sanchez, Isaias Carrasco, Enrike Rodriguez, Jose Miguel Perez, Juan Luis Otxandiano. Makurtuta: Juan Pedro Caballero, Angel Segovia.

C taldea

	Partiduak				Golak		Ptak.
	Jokat.	Irab.	Ados	Gald.	Alde	Aurk.	Ttak.
Bar Kajoi	2	2	0	0	14	4	4
Sum. Ind. Ugarte	2	2	0	0	10	5	4
New Laso Arregis	2	2	0	0	9	7	4
Zuloak	2	1	1	0	8	5	3
Diego Antonio	2	0	1	1	6	11	1
Pepelus	2	0	0	2	7	11	0
Rayo Vatica-no	2	0	0	2	5	8	0
Los Heredia	2	0	0	2	3	11	0



OKIENDO KIROLAK

BEHERAPENETAKO AZKEN EGUNAK



Penaltya botatzeko garaia. Begirada guztiak jaurtiko duenaren gainean biltzen dira. Hego haizea ibili zen larunbat goizean, eta ondorioz baloiari eutsi beharra.

Txutxumutxua: penaltya Kajoikoen aurka zen, nahiz eta baloia eusten duena euretarikoa izan.

OPEL 
Hobeak esperientziaz

TALLERES OLA, S.A.
Erakusketa Arrasaten:
Loramendi 2, Tfnoa: 79 05 86


Lorategi
Kafetegia

Iturriotz 7, Tfnoa: 79 04 67

EMAITZAK

A taldea

Argi Ibili 10	Cameruns 1
Bar Artano 9	Zortzikin nahiko 3
Potrozorri 4	Autovia Patutia 3
Artzankos 6	Kriskibalda 4

B taldea

Bizkorrak 3	Fosforos 1
Alperrak Aldatz 3	Arrasate Kiroiak 4
Lorategi Potroak 1	Golfos Persicos 3
Sokoa 600 9	Adelaida 9

C taldea

Zuloak 5	Los Heredia 2
Bar Kajo 8	Diego Antonio 3
New Laso Arregis 5	Rayo Vatika-no 4
Sum. Ind. Ugarte 7	Pepelus 4

ATEZAINAK


Jesus Moreno Saria

Carlos Ros



- 2 gol. Carlos Ros, (Bizkorrak).
- 3 gol. Miguel Galan, (Golfos Persicos).
- 4 gol. Angel Elkorobarrutia, Jose Miguel Perez, eta Vicente Vicario.

ALCANADRE
TABERNA



GURE LEKU
taberna

Zarugalde kalea, Tfnoa: 79 20 29

ZENBAKI SARITUA:
16.266

Ebaki eta gorde txartel hau!

Trikitik eta Kajo tabernak Walkman bat zozkatuko dute astero. Astero aterako da zenbaki bat, eta saria jasotzeko epea 6 egunekoa izango da.

Sariturik agertu ezean, hurrengo asterako gordeko da saria, eta antzeko sariren batekin trukatu ahal izango da Trikitin.

Trikiti

SOINUA • BIDEOA • T.Ba • KOMUNIKAZIOA

Otalora 25, Tfnoa: 77 13 20 Faxa: 79 88 56 ARRASATE

20902

Txutak

ARGI IBILI

Zaldibarko futbito txapelketako bigarren ihardunaldiak, une hauetan talde indartsuenak zeintzuk diren ikusteko balio izan du. Bigarren ihardunaldian izan diren emaitzen arabera, *Argi Ibili*, *Golfos Persicos*, *Bar Kajoi*, *Suministros Industriales Ugarte*, eta *New Laso Arregis* txapelketako talde indartsuenak izango lirateke. Aipatutako emaitzak talde indartsuenak zeintzuk diren esateko balio duten eraberean, momentuz makal edo ahulenen agertzen dire-

nak zeintzuk izan daitezkeen esateko ere balio dute. Talde ahulenen zerrenda, oraingoz, *Zortzikin nahiko*, *Pepelus*, *Rayo Vaticano*, eta *Los Herediak* osatuko lukete.

Sailkapenei buruz zer-bait adierazgarri esateko goizegi bada ere, interesgarria litzateke lehen faseko azken sailkapena eta oraingoaren arteko konparaketa egitea. Konparaketa eginaz gero *Bar Kajoi*, *Artzankos*, eta *New Laso Arregis* taldeek orain daramaten bidea sorpresatzat har daiteke, bigarren faserako klasifikazioa ozta-ozta lortu zuten eta. Konparaketa beraren ondorioz, *Argi Ibili* eta *Suministros Ugarte*k mendera ezinak dirudite.

Beñardo Kortabarria

DATORREN ASTEBURUAN

A taldea	
Argi Ibili	Kriskibalda
Bar Artano	Autovia Patutia
Potrozorri	Zortzikin nahiko
Artzankos	Camerun's
B taldea	
Bizkorrak	Adelaida
Alperrak Aldatz	Golfos Persicos
Lorategi Potroak	Arrasate Kirolak
Sokoa 600	Fosforos
C taldea	
Zuloak	Pepelus
Bar Kajoi	Rayo Vaticano
New Laso Arregis	Diego Antonio
Sum. Ind. Ugarte	Los Heredia

GOLEGILEAK

Mikel Otxoa Saria



Elizaran

- 10 gol.** Jose Martin Elizaran, (Argi Ibili).
- 5 gol.** Eleuterio Cid, Argi Ibilikoa, eta Endika Murumendaraz, (Sokoa 600).
- 4 gol.** Barreiros, (Kriskibalda), Pascual eta Iñaki Mujika (Bar Kajoi).



AURORA-POLAR

Aseguruak

Mikel Lasa agentzia

Zerkaosteta 15 etxabehea, Tfnoa: 77 00 94, Faxa: 77 10 74 ARRASATE




SAN ANDRES AUTOAK

Araba Etorbidea 13,
Tfnoak: 79 95 22 / 79 53 98
ARRASATE

Jose Angel Barrutiabengoa

Arrasateren iraganetik oraina ezagutu guran



Arrasate Zientzia Elkarteko lehendakari da Jose Angel Barrutiabengoa. Urtebete lanean eta egiteko asko buruan, honela eman digu euren asmo eta arazoan berri.

– Zenbat kide zarete eta zer lan burutu duzue orain arte?

– Momentu honetan 14 kide gara elkartean, oraindik jende gehiago hurbiltzea espero dugun arren. Jende gehiagorekin arlo ezberdinetako sailak sortuko genituzke. Lanen artean, Arrasateko argazkiei buruzko lan proposamena aurkeztu genuen Udalean, Artxibo batean gordetzeko. Arrasateko azoak, kaleak, leku irekiak, argazkietan jasotzea. ASA argazkilari taldea ari da horretan, eta aurreratu samartua izan behar dute. Jose Letona beka ere eman ziguten eta 1807-1813 urte bitarteko Arrasate aztertzen ari gara, eta azken zatian ari gara dagoeneko, iraila aldera edo aurkezteko.

– Zer motatako jendea bilzen du elkartean?

– Gehienok arrasatearrak gara, Aranzadin diharduten donostiar bi izan ezik. Historian lizentziatuak dira sei, baina besteok zaletasunez ari

garenak gara, ogibidez beste bat izanagatik gaiok gustatzen zaizkigulako ari garenak. Ni podologoa naiz, beste bat irakaslea, aparejadorea, kaitaiko langilea, eta antzeko lanbidetakoak. Orain oñatiar batek dei egin digu. Horrelakoekin, gai ezberdinen inguruko taldetxoak, lanak, erakusketak egingo genituzke. Oraingoan, gaudenon zaletasunek eraginda, gai horietara mugatu izan gara batez ere, baina norbait baleztor arazo edo gai jakin baten inguruan ikerlana egin nahi duela esanez, ongietorria!

“ Jende gehiagoren beharrea gaude, sail ezberdinetan jarduteko

Arrasateko kultura mugituko duen talde bezala funtzionatzea da gure asmoa, jende mota ezberdina bildu eta lanak burutzeko laguntzak eskaintzea. Gainera ez dago eperik edo bukatzeko datarik, norberak jartzen bait du bere lan erritmoa. Arrasaten badago guzti horretarako gai den jendea.

– Une hauetan zientzia ilkarterean bizi dituzuen ar-

zoak, beharrak ...

– Arazo handi bat daukagu: lokalarena. Arrasaten konponbide nekezeko kontua dela badakigu eta Udalen aldetik hitz on guztiak ditugu, baina lokalik ez dago. Orain sakabanatu samartuta gabiltza, bilerak etxeetan, materiala banatuta, lekurik ezean. Beharrik handiena horixe dugu, lokala, denik eta txikiena izanda ere.

– Orain egiteko dauden lanetan, premiazoena?

– Egin beharrekoetan, Santa Barbarako gazteluaren inguruko gaiak aipatuko ni-

hobeto, eta aurrera begira, urrutiko helburu edo asmo legez, momentu historiko ezberdinak kateatuaz joan eta Arrasateren historiarekin liburu argitaratzea litzateke.

– Arrasateko herri ezjakina al da, benetan, bere herriaren historiaren inguruan?

– Bada, baina ez beste herri batzuk baino gehiago. Jendea orokorrean ez da arduratzen honelako gaiez, herri guztietan gauza bera gertatzen da. Beharbada guk jaramon handiagotziko diogu, baina lan polita da. Guggiana berez hurbildu direnak ere oso gutxi izan dira, gehien bat geu joan gara jendearengana, laguntza eske.

– Artxiboetan lanean ari zarete etengabe. Nola daude inguru hauetakoak?


– Parrokiakoa aparta da, eta kontserbazio aldetik ere ondo dago. Badira beste batzuk liburuak pilatuta eta hezetasun handian daudenak. Partikularrenak, berriz, jabeak nahi duen moduan, baina Arrasaten orokorrean ondo daudela esango nuke. Joateko ez dago oztoporik. Tolosakora joateko, gaizki dago lanean ari garenontzat, larunbatean joan behar izaten da eta oso denbora urria gertatzen da eta, baina gainerakoan ondo.



Erreala Atxabalpen



Ariketa fisiko eta lasterketa biziak lehenik, baloiak ikutzea ondoren, pressing-a eginez partidutxoak, eta azkenik izkinatik ateratako baloiak errematatuz joan zitzaizen entrenamendu orduko t'erdia Errealeko jokalariei.




Mikel Loinazek aurtengo denboraldian ez du aukera gehiegirik izan, horregatik entrenamenduetan jo eta ke ari izaten da, besteek bezala, taldean tokia aurkitzeko.




Erreala behin etorri Atxabalpera, eta bertan elurra jaustea egokitu zen.

Elurra izanda ere, ikusle ugari hurbildu zen hotza pasatuz. Jokalariak behintzat, egin zituzten berdtze ariketak ikusirik, ez zuten hotz handiegirik pasatuko.



Agustin Gajate erdi-lesionatuta dabil eta horregatik Atxabalpen izan bazen ere, ez zuen besteekin entrenatu. Dena dela, argazkiak adierazten duenez, lan handia izan zuen autografoak ematen, umeek zuten eta bakean utzi. Txintik esan barik jasan zuen haurren eraso.



Notario Etxagibel (Musakola Auzoa)
Tfnoak: 79 58 11 / 79 59 76

Gauzak gordetzeko kutxa metalikoak
Otzaratzarrak
Giltzak gordetzeko armairuak
Erremintak eramateko gurdiak
Erremintak gordetzeko armairuak
Lan egiteko aulkiak




Eskaiola, pintura eta kortexozko apainketa

Tfnoak: 77 12 88 eta 77 12 75
ARRASATE

JOSEAN GAY

Gipuzkoako rekord-etik estatuko txapelketara

PODIUMA



Podiumera merezi duenak igotzen du, eta joan den asteburuan Madrilen Gayk podiumaren goreneraino igo zuen bezala, aste honetan guk Arrasate Presseko podiumera ekarri dugu.

Asteburu honetan Sevillan Espainiako txapelketa absolutuak burutuko dira, eta Josean Gayk bertan parte hartuko duenez berarekin hitz egitea ezinezkoa izan da. Hala ere, bera inork baino hobeto ezagutzen duen Fernando Zufiriak Gayk egin duenaren eta egin dezakeenari buruzko eritziak emateko eragozpenik ez du izan.

Norbait jakin gabe egon daitekeela eta, joan den asteburuan Madrilen burututako Espainiako Promesa Txapelketetan Josean Gayk 200 metro-tako txapelketa lortu zuela esan behar da. *"Madrileko pista horrelako lasterketetarako oso txarra da, motza delako eta zorua bat ere ondo ez dago-elako. Aste horretatik, Joseanek egin zuen 20,50 segunduko marka ez dela ona esan behar da, berak behin baino gehiagotan 20 segundu baino gutxiago egin ditu eta. Tituluak garrantzi handia dauka, Gay promesan mailan egongo den azken urtea bait da"*

Egindakoa garrantzitsua den bezala, egin beharrekoari Fernando Zufiriak garrantzi handiago ematen dio. *"Sevillan burutuko den Espainiako txapelketak garrantzi handiagoa dauka, kontuan hartzen bada txapelketa absolutua dela. Joseanek 400 metroko frogan hartuko du parte, eta beharbada gehiegi esatea izan daiteke, baina Euskadiko rekorda bereganatzeko aukera franko dituela iruditzen zait. Rekorda 47,05 segundutan dago eta Gayk hori hautsi dezake. Gainera, kontuan hartu behar da estatuan dauden atleta hobereenen ondoan egingo duela korrika, eta horrek beti gehiago saiaterara bultzatuko du. Horretaz gain, Sevillako pistan konponketak egin direla esan behar da, eta pista oso egoera onean dagoela. Baldintza horiei, gaur egun Joseanek duen egoera fisikoa gaineratzen bazaie, ez zait gehiegikeria iruditzen 400 metroko Euskadiko rekorda Arrasatera etor daitekeela"*

◆ Emakumezkoen futbola

Mondrako emakumezkoen futbol taldeak garaipen bikaina lortu zuen Dumboa taldearen aurkako partiduan eta haien etxean. Gol bakar bategatik irabazi bazuten ere, partidu guztian zehar arrasatearrak jaun eta jabe izan ziren.

Aretxabaletako taldeak berriz, ezin izan zuen Anaitasunaren defentsa gaititu, eta partidua hasi zen bezala bukatu zen. Atxabaltarrek hobeto jokatuzuten, baina golaren saria atera gabe.

Datorren asteburuari begira, interresgarri baino interresgarriagoa izango den partiduan, igandean arratsaldeko 4.15etan: *Mondra-Aretxabaleta*.

◆ Arrasate Kirolakek galdu

Es kubaloi taldeak ez zion hasiera onik eman kategorია eusteko faseari, Usurbilen jokatutako partiduan 34 eta 21 galdu zuen eta. Arrasateko taldeak, lesioak medio, normala baino jende gutxiagorekin egin zuen bidaiia. Partidu hasieran usurbildarrak erraz nagusitu ziren, baina apurka-apurka Arrasate Kirolakek aurretik jartzea ere lortu zuen, 7 eta 8. Hortik aurrera, gauzak arrasatearrentzat zeharo okertu ziren. Usurbildarrak asko presionatuz, eta arbitroen laguntza ere jasoz, ez zuten arazorik izan partidua irabazteko.

◆ San Andres ezinean

Amurrioraino joan ziren San Andres taldeko jokalariek joan den asteburuan, opari gazi samarra ekarri zutelarik, zortzi gol. San Andresek erraztasun ugari eman zituen eta amurriotarrek ez zuten barkatu. San Andres taldea moral eta ideia barik ari da jokatzen, eta txapelketako lehen buelta bukatu denean, 5 puntu eta 7 negatibo dauzka. Hurrengo ihardunaldian San Andresek Abetxuko liderra izango du aurrez-aurre, arabarren zelaian.



ERAÑA AHOLKULARITZA

OROTARAKO ASEGURUAK

Kontzezlno kalea 4, beheha Tfnoa: 79 83 95 ARRASATE

Iggy Pop, ifernutik bueltan

Duela hogeitun urte Iggy Pop Donostiara etorri izan balitz, Egiako gaztetxean emango zukeen bere kontzertua. Entzule bakanak, bakoitza punta batetik etorria, mugarik gabeko transgresioaren bila inguratuko ziratekeen. Punkia asmatu gabe zegoen garaiko punkiak denak ere. Iggyk, bere alde-
tik, ohizko zeremonia eman-
go zukeen: frakak apurtu,
botila txikitu batekin bularra
zauritu, entzuleak iraindu,
istilua sortu azkenik, drogen
eraginez, seko lurrera erori.

Hogeitun urte beranduago, Iggy Pop Donostiara dator,

Belodromora hain zuzen. Jende multzo handia espero den seinale. Multzo handi horretan berdin ikusi ahal izango dira punkie berantiar-
rak eta rock gogorraren za-
leak, besterik gabeko rocke-
roak eta bere garaian Iggy
gorrotatu zuten hippie bir-
ziklatuak, berdin modernoak
edo heavyak edo musika
ororen aldeko eklektikoak.

Bizitzarekin borrokan, ifernuraino iritsi zen Iggy Pop 70. eta hamarkadaren has-
tapenetan. Hippieen bake-
zaletasunaren aurka biolen-
tzia, droga gogorrak eta au-
todestrukzioa aldarrikatzen
zutenen artean, bera bilakatu
zen eredu. Inor baino harun-


tzago iritsi zen bide horreta-
tik, tarteka rockak inoiz eman
dituen kantu bortitzenak eta
indartsuenak sortuz.

Baina beste zenbait bi-
dean erori zen bitartean, Iggy
itzuli egin da Ifernutik.
"Laurogeiko hamarkadaren
lehen urteetan sortu zitzai-
dan sekulako grina ea nola
sentituko ote nintzen guztiz
garbi egonda, ezer hartu
gabe" dio orain. Gaurko Iggy
honek ez du jadanik drogarik
hartzeko, ez du edaten eta
erretzeari utzi nahian dabil.
Golfean ari izaten da, eskiatu
ere egiten du eta surfa ikara-
garri gustatzen zaio. Eta
errematerako, oso zoriontsu
omen da bere emaztearekin.

Gauzak horrela, musikaren
industriak beso zabalik hartu
du eta ia urtero kaleratzen
dio disko berriren bat. Erabat
onartua dago beste musikoen
artean eta beraien laguntza
ugari jasotzen du diskoak
egiterakoan.

Horixe da Donostiara da-
torkigun Iggy Pop, rockaren
izar bilakatu den musikoa.
Eta musika ona eskainiko du
ziur, erritmo gogor eta kita-
rra indartsuetan oinarritutako
rocka. Zenbaitek, hala ere,
gehiago nahiko du, keinuren
bat akaso, zeozer... Ez bait
da egunero norbait ifernutik
bueltatzen.

Mikel Irizar



Construcciones ARRASATE S. L.


(Lehen Construcciones CODIMA)

Udalpe 5, Etxabehea. Erguin auzoa. Tfnoa: 79 04 46
ARRASATE

Batuta

Karmelo Eriz

Santa Agedako koruko partaide ezaguna dugu Karmelo Eriz, sortzez ere santaagedatarra. Mutikotan hasi zen musika ikasten, fraileetako organojole itsu batekin eta pianoa ere bertan ikasi zuen. Han armonioa jotzetik hasi eta Arrasateko koru parrokiakera etorri zen. Kontatzen dizkigunaren harian fetxa konkreturik ez du gogoratzeko Karmelok, eta musika mailan egindako bide luzearen zertzelada ugari gogoratzen du. *"Koruen goraldiaren garaia, zartzuela ugari egin ziren Mondragoen, eta Guridi bera ere etorri zen birritan Arrasatera"*. Baina kanpora ere sarritan irtena dugu Karmelo.. *"Bergarako Orfeoikoez Iruñekoekin harremana zuten, handik ere dei egiten hasi zitzaizkigu, eta askotan joanak gara"*, dio pluralean hitz eginez. *"Granada Mahler-en zortzigarren sinfonia estreinatu zenean han ginen, eta donostiarrak ere hanzirenez, eurekin ere joateko eskatu ziguten. Bi aldiz Parisera eta Berlineko Filarmonikara ere joanda gaude haiekin"*. Lisboa, Madril, Bartzelona, Sevilla, eta Frantziako beste hainbat hiri behin eta berriz bisitatu izan ditu



arrasatear honek, beti kantuan. *"Zigor estreinatu zenean ere, Proarte izeneko korua eratu zen Bilbon, eta gu orduan ere han geunden; gutxi gorabehera 70 ean izan zen hori"*.

Orain batez ere Parrokiako koruan ari da, Goikobaluren hasieran ibili bazen ere, orain utzita dago eta. *"Panplonesarekin ibiltzen gara gehien, eta azken aldiak Eskoriatzako Gorosarriekin ere bai, oskestrarekin ematen dituzten kontzertuetan"*. Oraingo koru mugimendua oso inportantea iruditzen zaio, *"teknika handia dago lehengo aldean. Lehen ahotsek resaltatu egiten zuten gehiago, eta orain taldea bat egitera jotzen da batez ere. Nik ikasi dudana esperientziaren puruz ikasi dut, zuzendari eta talde asko ezagutu ditut, eta asko fijatuta izan naiz denen lanean"*.

Gaur egun oso teknika ona daukate koruek

Txio txioak


✦ Goikobaluren egonaldia Barrian

Datorren martxoaren 2a eta 3a, larunbata eta igandea, Goikobalu abesbatzak Arabako Barria herrian igaroko ditu, zenbait ekitaldi egingo duelarik. Martxoaren 23an, Goikobaluk Hondarribian *"Tedeum"*-a abestu beharko du, eta Barriako egonaldia ekitaldi hori prestatzeko baliagarria izan daiteke-elakoan daude, baita gero Galesera egingo duten bidaia prestatzeko ere.

✦ Emanaldi ugari Gorosarri abesbatzak

Bost kontzertu, bost, emango ditu Eskoriatzako Gorosarri abesbatzak datorren hilean, martxoan. San Jose zubia aprobetxatuz, martxoaren 16tik 19ra bitartean Avilesera joango dira *Sociedad Coral Avilesinak* gonbidatuta. Han bi kontzertu emango dituzte. Martxoaren 22an, berriz, Getxora doaz, 23an Bausaurin tokatzen zaie kantatzea eta 26an Durangon.

Gorosarri abesbatza Eskoriatza, eta Arrasateko jendeak osatzen du. Astean bi egunetan entseiatzen dute, astelehen eta ostegunetan, Eskoriatzako Irakasle Eskolan.



EGVZKIGRAF

Grafikagintza. Tipografia. Offset industrialia

- Liburuak
- Aldizkariak
- Katalogoak
- Liburuskak
- Merkatal inprimakiak
- Bulegoko materiala

Ni hizkuntzarentzako garrantzizkoa naiz hizkuntza niretzako garrantzizkoa bada. Eta alderantziz

Gaur egun euskaraz dakigunon artean bi eratakoak gaude:

A) *Euskaraz egin nahi dugunak*: euskaraz bizitzea posible izan dadin ahalegindu nahi dugunok eta eginkizun honetan geure aldetik eman behar dena emateko prest gaudenok. Ez pentsa asko garenik aukera kontziente hau egingo dugu; baina batzuk aukera hau eginda edukitzeak, posible dela esan nahi du batetik, eta bestetik, euskerak askoz ere gehiago beharko dituela halakoak aurrera egingo badu.

B) *Euskaraz egin ahal dutenak*: bigarren multzo

honetan biltzen dira euskaraz egin ahal izanda ere, erderaz egiten segitzen dutenak euron modukoekin. A, hori bai, euskeraz egitea inporta zaion norbaitekin euskeraz egin behar badute, egiten dute, baina ez dira eurok izango lehendabiziko urratsa (ahalegina) egingo dutenak.

Zenbat gara Arrasaten geure burua A multzokoaren artean ikusten dugunok, zenbat horretarantz goazetok? Hortxe dago apustua hain zuzen ere: zeintzuk izan nahi dugu euskaldun ahal beste?

Euskararen normalizazioaren lehendabiziko urratsa, ezinbestekoa dena, ho-

rixe bait da: A multzoan gauden euskaldun kontzienteak elkarren berri izatea eta geure ahaleginak norabide beretik bideratzea. Geuk izan behar dugu euskaraz egin ahal duten horiek euskaraz egin nahi izatera pasatzeko konbentzitu behar ditugunak.

Arrasaten gaur egun komunitate erdeldun bat dago eta beste bat elebiduna. Komunitate elebidun honetako zenbat partaide gaude prest *Euskal Komunitate* elebakarra osatuz, eginez, landuz joateko?

Zenbat eta gehiago izan orduan eta sinesgarritasun handiagoa izango du gure proiektuak, orduan eta kon-


fidantza handiago izango dugu euskaldunok gure indarrengan. Eta konpaktazio hori da lehendabiziko urratsa. Arrasaten bertan proiektu handiak ari dira martxan jartzten, eta dinamika honetan egiten ari garena eta askoz ere gehiago egin ahal dugu A multzoko euskaldunak elkarrekin.

Etorkizuna, nahi badugu -eta uzten badigute- geurea da. ~~Era~~ geure benetazko ahaleginen ondorioz lortuko ez bagenu ere, geure buruarekin lasai egoteko moduan geundeke: ez dugu geure burua eta geure herria prostituitu, behintzat.

Atalataiko



Zure autoa doan aztertzea



Arrasateko Udalak, EVE taldeko CADEMekin bat eginda, zure autoarentzako zerbitzu guztiz doanekoa eskaintzen du.

- Egunak: **Otsailaren 18tik apirilaren 19ra arte.**
- Diagnosi lekua: **Lehen EJE zena, Udal Biltegia orain, baina Errekalde kaletik sartuta.**
- Ordutegia: **Astelehenetik ostiralera, goizez 10etatik ordubata arte; arratsaldez 3.30etatik 6.30etara.**

IBILGAILUA BERRAZTERTU GURA DUENAK TXARTELA IZAN BAHERKO DU, DAGOKION LEKU ETA ORDUAREKIN; txartel hau diagnosi lekuan bertan luzatuko da, martxoaren 5etik aurrera.

Programa honek erregaiaren kontsumoari, inguruaren kutsadurari eta zirkulazioko segurtasunari dagozkien anomaliak detektatzea du helburutzat. Puntu hauek aztertuko dira:


- Nibelen kontrola eta estankotasuna.
- Bateria eta karga-zirkuitua.
- Ihes-gasak konprobatzea.
- Pneumatikoak.
- Direkzioa.
- Argiak.
- Pizteko sistema.
- Zilindroen konpresioa.
- Banatzailearen kontrola.
- Erregaiaren kontsumoa.
- Esekidura.
- Gasolina-ponpa eta karburadorearen kontrola.

Diagnosia ondoren CADEMekin kontzertatutako edozein tailerretara joan ahal izango da; erabiltzaileak, lanekuari dagokionez, kasu batzuetan %30erainoko beherapena izango du, diagnostikatutako konponketetan. Horretarako CADEMeko teknikariek luzatutako inprimakia erakutsi beharko da.

Luis Mari Alvarez

Eskoriatzako Irakasle
Eskolako irakaslea


Laster bost urte beteko ditu Luis Mari Alvarezen R-21ak, orain artean ondo fibili den autoak. Barrutik zazpi aldiz lapurtu omen diote zerbait, irrati-kasseta besapean eramatekoa badu ere. Karneta ateratzerakoan, konfidantza gehiegi izateagatik, lehen aldiz teorikoa suspenditu zuen Luis Marik, bigarrenean erraz ateratzeko. Globittoa ere batzuetan puzterazi diote, baina orain artean behintzat isunaz libratu da, "behin, ikutu samar banengoen ere".



Salterain

Ezagutu itzazu P.V.C. ren bitartez gaur egun eskura daukazun leiho miresgarriak, ez hotzik, ez berorik, ez soinurik ...

Gral. Garro, 2 eta Uribarri Etorbidea, 20.
Tfnoak: 79 24 12 eta 79 99 58



P. C. V.zko LEIHOGINTZA

20.500 ARRASATE

Besaide elkartearen bilera

Joan den urtarrilaren 29an Besaide Mendizale Elkarateak bere urteko Bilera arrunta egin zuen. Bertan iazko urtean zehar egindako ekintza guztiei errepassoa eman zitzaien.

Ekainaren 16an adibidez, rockodromoa inauguratu zenetik, jende asko izan da eskaladaren teknika ikasten ari izan dena.

Ikastaroei dagokienez, bost egin ziren. Bi neguko teknikei buruz, Bizkaiko Goimendi Eskolakoek emanda. Bertan 21 lagunek hartu zuten parte. Beste bi ikastaro haitz eskaladaz izan ziren. Azkenik, alpinismo ikastaroa ere eratu zen, Gi-

puzkoako GMEk antolatuta.

Igandeetan zazpi irteera antolatu ziren, denetara 301 lagun joan zirelarik. Pirinioetara bi irtenaldi, Vall d'Aranera bata, 37 lagunekin, eta Gavarnie-ra bestea, 38 lagunekin. Pilarikaren zubian Zuberora eta Belagua inguruak ibili genituen. Azken hau, nahiz eta bakarrik 19 lagun joan, irteera ederra izan zen, giroa eta parajeak kontuan hartuz gero behintzat. Bitxikeria gisa esan horietako hamar lagunek lehen aldiz lortu zutela 3.000 motroko gailurrak egitea. Haien poza!

Espeleologoak jo eta ke ibili ziren Kurtzebarri, Udailaitz, Arlaban eta inguruko kobak miatzen. Horretaz gain, Espeleologia ikastaroa

antolatu zuten, hiru aste-burutan zehar, 12 lagun eskuhartzeaz.

Mendi astea ere aipatu zen eraturako ekintzen artean, bertan diapositiba-emanaldi, hitzaldi eta bestelako ekitaldiak sartu zirela.

Besaide inguruak, monumentu berria barne, txukuntzeko planak aurrera doaz, dagoeneko Arabari dagozkion lurak erosita ere bai. Lurrak egokitzea baino ez da falta. Irailaren 29an inauguratu ahal izateko eman beharreko pausuak aurten emango dira.

Jon Arregi orain arteko lehendakariari erreleboa emanaz, andoni Villar aukeratu zuten lehendakari berri bilerakideek. Animo, bada,

presidente berriari eta mendizale guztiei. Aurtengo asmoen berri ematea hurrengorako utziko dugu.

Besaideko Junta

OHARRA:

Igandean egin beharreko mendi irteerara eta ondoren izango den bazkariara jendeak arropa ugari eraman dezala abixatu nahi du Besaidek. Antza denez, Petritegi sagardotegian hotz egiten du eta arropa lehor eta beroa eramatea gomendatzen da.



Bederen 1
antzerki taldeak
aurkezten du:

JACQUES Y SUAMO


Milan Kunderaren komedia

- Otsailak 16, larunbata
- Gaueko 10.30etan
- Amaia antzokian
- Sarrera: 500 pta.

Gazte txartelarekin 300 pta.



Indarberritu den lehoi arrasatearra



RONEO

■ Lehoiak normalean urte asko hartzen baditu ere, Arrasateko lehoi honek 61 bete ditu eta indarberriturik beste hainbeste, behintzat, hartzea nahilituzke.

• 1929. ean **RONEO**k, hizkuntza ingelesa medio, bulegoetarako altzariak egiteari ekin zion. Bizkor eta indartsu bizi izan da orain arte. Eta etorkizunean berdintsu jarraitzeko indarberritze sasoi heldu zaio.

• 1990. urtea garrantzi handikoa da **RONEO**-rentzat, planta guztiz berria zabaldu du Arrasaten, 2.900 m² koa, azkenengo teknologia berriko makinak, pintura tresna eta CADa instalatu dituelarik.

• Diseinuan ere aldaketa nabari egiten dihardu, produktu berrietan sartzen, aukietan batez ere, pertsonala hezitzen ari da, eta komertzializazio sarea finkatzen. Sasoi batean teknologia inportatu bazuen ere orain produktuak esportatzen ditu.

RONEO indarberritu da, Arrasate ere bai.

RONEO UCEM

Bulegoetarako Orotariko Hornidura Ingenieritza

Aste gazte

Ez dut nire semeak desfilatzerik nahi, inoren semeek desfilatzerik, fusila eta heriotza lepoan, inoiz fusilik disparatzerik, inoiz fusilik egiterik.

Angela Figuera

Bidaiak

• Parisera. Aste Santuan, martxoak 27-apirilak 1. Bus-literan. Prezioa: 12.900 pta. Ikasle eta langabetuei deskontua egingo zaie.

Lanpostu deialdiak

• Bergarako Udalak erdi mailako teknikaria urtebetetarako kontratatzeko deialdia egin du. Eginbeharra: eraberritze obretan aholkulari lana egitea. Instantziak aurkezteko epea: otsailak 21.
• Zumaiako Udalak Gi-



zarte Laguntzaile bat kontratatzeko deialdia egin du (kontratu finkoa). Instantziak aurkezteko epea: otsailak 27.

• Eibarko Udalak honako lanpostu hauek jabetzan betetzeko deialdia egin du:

- Hiru Udaltzain.
- Ordenantza bat.
- Iturgin bat.
- Administrari-Laguntzaile bi.
- Administrario Orokorreko Administrari bat.
- Ekonomia eta Enpleguaren Sustapenerako Erdi Mailako Teknikari bat.
- Arkitekto Tekniko bat.
- Aparejadore bat.
- Injinieru bat

Eskaerak aurkezteko epea: martxoak 1.

Dirulaguntzak

• Herriko Gazte-Taldeek otsailaren amaiera arte dute epea 1991ko ekintza-programak burutzeko dirulaguntza eskatzeko.

• Arrasateko rock taldeei maketak grabatzeko dirulaguntzak. Dirulaguntza: kostuaren %50a.

Lan-ihardunaldiak

• Italian: Fratta Todinan (Perugia). Martxoak 3-23. Lana: erreabilitazio-zentru baten patioaren eraikuntza, lorategia konpondu, etab. Inskripzioa: 5.000 pta.

• Holandan. Apirilak 7-Maiatzak 4. Lana: erakunde benefiko baten eraikuntza berregokitzea. Adina: 18-26 urte. Inskripzioa: 5.000 pta.

Ikastaroak

• UNEDeko Gipuzkoako Zuzenbide Praktikako Eskola: "Prozesu-Zuzenbidea: Zibila eta Penal". Iraupena: Martxoak 4-Apirilak 30. Nori zuzendua: Zuzenbidean lizentziatuei eta karrerako 5. mailakoei. Inskripzio-epea: otsailaren 23a arte.

Bekak

• Norvegiako Irakaskuntza Popularreko ikastegietan ikasteko bekak. Eskatzaileak: 1967 eta 1973 bitartean jaiotakoak: ez da inolako titulaziorik behar. Ingelesa edota eskandinabiar hizkuntzaren bat ezagutzea nahitaezkoa da. Dirulaguntza: alojamendua, mantenua eta liburuak erosteko dirua.

• Belgikako Liejako Unibertsitatean ikasketak burutzeko bekak 1991-92 ikasturtean. Eskatzaileak: frantsesa menperatzen duten 35 urtetik beherako goi mailako graduatuak. Ikerketa edo Doktoradutza lanak burutzeko. Dirulaguntza: 30.000 franko belgiar hileru eta bidailaguntza. Iraupena: 9 hilabete. Epea: martxoak 15.

Informazio gehiago:

Gazte Zerbitzua,
77 00 65

**ANALISI KLINIKOAK,
LABORATEGIA**

I. Laborra Erdozain

(Lagun Aro, Diputazioa, Previasa, Asisa, Capisa)
GINEKOLOGI KONTSULTA

Zerkaosteta 17, etxebeha, Tfnoa: 79 20 18
ARRASATE

Eslu

ileapaindegia

Tfnoa: 79 37 88
Arrasate

ALTUNA

*Lurrindegia
bisutegia
drogeria*

Maalako Errabala
Tfnoa: 79 14 23

ETXEBIZITZAK

- Donostian etxebizitza konpartitzeko txokorik baldin baduzu deitu 79 24 52 tfnora. Joseba.
- 45m²-ko lokala saltzen da oso merke. Edozein motatako negozioa jartzeko. Interesatuak dei egin 94 - 682 04 83 tfnora. Astearte-larunbata bitartean 9etatik 1era.
- Logela alokatzen da bi oherekin. Tfnoa: 79 07 73.
- Etxebizitza salgai Zarugaide kalean. Garajea eta ganbara. Guztiz berria. Tfnoak: 77 09 33 eta 79 04 69.
- Aramalon etxebizitza salgai. Erdi amueblatua, 3 logela, 2 bainugela, sukaldea, egongela-jantokia, ganbara, banakako kalefakzioa eta garajea. Tfnoak: 945 - 45 50 75 eta 44 52 04.
- Erreterria aldean lan egin behar dut; pisuren batean logela liberrik ezagutuz gero, deitu 79 24 66 tfnora. Kepa.
- Arrasaten erdialdean etxebizitza salgai. 3 logela, 2 bainugela, sukaldea, egongela eta ganbara. Garajea aukeran. Tfno. 79 95 46, gaueko 8etatik 10ak arte.
- Etxebizitza salgai Zaldibarren, berritua eta prezio onean. 78m². Deitu konpromezurik gabe 77 12 22 tfnora. gaueko 9etatik aurrera.
- Arrasaten neska edo mutila behar da etxebizitza konpartitzeko. Deitu astelehenetik ostiralera gaueko 8.30etatik aurrera. Tfnoa: 77 08 90.

LANA

- OHOk klase partikularrak ematen dira euskaraz zein erdaraz. Tfnoa.: 79 26 19. Itziar.

- Emakumea umeak zaintzeko prest. Tfnoa.: 79 97 58.
- Emakumea afariak edo bazkariak zerbitzeko prest. Deitu 79 78 65 tfnora.
- Fisika klaseak ematen dira. Goizean eta arratsaldean. Tfnoa: 77 13 95.
- Erretegi batean astebukaeretan lana egiteko bi emakume behar dira. Tfnoa: 76 22 68.
- Idazmakinez eta ordenadorez pasatzen dira lanak. Tfnoa: 79 62 89.
- Andrak etxeko lanak egingo lituzke, orduka. Tfnoa: 79 15 56.
- Emakumea behar da Gasteizen etxeko lanak eta umea zaintzeko. Tfnoa: (945) 23 29 74 (gauez).
- Kimika klaseak hartuko nituzke (1. Injinerutza) Tfnoa: 80 12 54.


SALEROSKETAK

- Adi mendizale!
 - Kastinger goi-mendiko plastikozko botak, barreneko botinaz 40-41 zenb.
 - Kamet larruzko goi-mendiko botak 43 zenb.
 - Camp markako kranpoiak eta pioleta salgai. Nahiko merketxo. Interesatuak deitu 79 92 92 tfnora. Juan Carlos.
- Orbea Mustang mendiko bizikleta, kalapiesak, argia, llanta eta pinioi berriak. Egoera oso onean 40.000 pta. Gutxi erabilia. Tfnoa: 79 54 65 egunero gauez. Garikoitzez galdetu, 9.00etatik 11.00etara.
- Karro denda berria salgai. Tfnoa: 799055 (94) 681 75 06.

- Sukaldeko mahaia eta aulkia erosiko nituzke. Tfnoa: 79 59 72.
- Opel Kadet-erako portaeskia salgai. Tfnoa: 79 45 39. Josefe.
- Autorako erremolkea salgai. Neurriak 1,10x1m. Tfnoa: 79 50 96.
- HI-FI ekualizadore ezin hobea salgai. Digitala eta analizadorearekin, mikrofonoa ere badauka. Prezio onean. Interesatuak dei 79 47 90 tfnora. Javi.
- Paseorako bigarren eskuko bizikleta erosiko nuke. Tfnoa: 79 48 97.

DENETARIK

- Kaixo Arrasate! Gaur Arrasate Press ailegatu zaigu. Beti bezala askotan pentsatzen dugu zuetaz. Zer moduz euskarazko klaseak, Karmel, Isi eta Esteban? Gora euskara? Sharryn eta Geoff.
- Gaztea buzoneaketa egiteko prest. Interesatuak dei egin 79 80 55 telefonora eguerdiko 2.30etatik 5etara eta gaueko 7.30etatik aurrera.
- Udaberria datorrela eta, esnatu da Jo ta fuego. Amona goixorik egon arren badu oraindik indarrak; beraz, hemendik aurrera Jo ta fuego. Aste santuetan bileratxo bat egitekotan gabiltz, joan prestatzen, ordurako amona dendatukoda eta.

 **ARRASATEN
HILDAKOAK** 

Julia Navas Lopez,
Otsailaren 7an, 80 urte.

Justina Bengoa Barrena,
Otsailaren 10ean, 84 urte.

**ORRIALDE HONETAKO IRAGARKIAK
DEBALDEKOAK DIRA. TESTUA IDATZI ETA
BIDALI GURE BULEGOETARA**

TESTUA:

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

Azoka kalea 1, 20.500 ARRASATE

Tfnoa: 77 08 15

Zer nahiago?

Ainhoa Arribas

"7 mares dendakoa"

- Arrain freskoa ala izoztua? Ez bata ez bestea, ez zait arraina gustatzen.
- Hotza ala beroa? Beroa nahiago dut.
- Neonezko argiak ala normalak? Normalak.
- Minigonak ala frakak? Frakak erabiltzen ditut.
- Kafetegia ala denda? Kafetegia.
- Bezeroak, emakumezkoak ala gizonezkoak? Bezeroa gizona ala emakumea izan, berdin dit.
- Denbora pasatzeko, irakurri ala irratia entzun? Irakurri.
- Asterix ala Obelix? Ez dakit. Behin ere ez dut irakurri horrelakorik.
- Oporretan, mendira ala hondartzara? Hondartzan hobeto.
- Igande arratsalderako, zinea ala poteoa? Zinea.
- Kokakola ala kubatak? Kokakola
- Fritoak ala kalamarrak? Beno, ba... fritoak.
- Kontuak ateratzeko, eskuz ala kalkuladoraz? Kobratu makinaz egiten dut, baina gero denda itxitakoan kontuak bietara ateratzen ditut.
- Bixigua ala legatza? Legatza.
- Erreala ala Bilbo? Beti izan naiz Errealekoa, ohituraz edo. Emaizak txarrak izanda ere, Errealekoa naiz.
- Kirola ala siesta? Biak gustatzen zaizkit.
- Marino ala Gorospe? Ez dakit, txirindularitzari ez diot jaramonik egiten, baina zerbait esatearren, Gorospe esango nuke.
- Larrosak ala krabelinak? Larrosak, beti oparitzen dizkidate, eta niri ere larrosak oparitzea gustatzen zait. Krabelinik sekula ez diot inori oparitu.
- Katua ala txakurra? Txakurra.
- Hondartzan, eguzkitan ala gerizpean? Eguzkitan egotea gustatzen zait.
- Arrasate ala Mondragoe? Arrasate.
- Bazkaldu ala afaldu? Bazkaltzea.



Arxibotik

"Coplas al nabo"

Bati baino gehiagori sinistea kostatuko zaio, baina bertso hauek ez dira berriak eta ez ditugu komun publiko baten ate ostean aurkitu. Alderantziz esanda, zaharrak dira oso, 1661ekoak dira, eta Arrasateko Udaletxeko Artxiboan daude. Xelebreak dira goitik behera eta idatzita ere, ez daude lekurik aproposenean idatzita. Izan ere, oso prozesu serio baten lehen orriaren ustean idatzirik aurkitu zituen artxibari zaharrak.

Aho zabalik geratu gara guztiok hemen ez dagoelako esaterik eskribanoaren letra berdina den ala ez eta artxiboan hain kontu berdeak ez direlako egunero egunero aurkitzen.

Bertsoak dauden daudenetan ematea luzeegia litzateke gaurkoan, beraz, datorren asteetan agertuko da gaurkoaren jarraipéna, merezi bait du bertso hauek nonbait argitaratzea. Sarrera dena den, alde batera utzi dugu.

Betiko moduan, grafia orijinala errespetatu dugu.

Olalla no ay medicina
que me de tanto consuelo
como el nabo de mi majuelo.
El es mi quita pessaires
el es quien me pone brio
es reparo de mi frio
y el tema de mis cantares
buscalo quando enfermares
que no hay tal cura en el suelo
como el nabo de mi majuelo.

Fue Teresa a su majuelo
la vispera del su santo
con olalla su bezina
hija de Pedro garrancho
donde estubieron solas
y merendaron de espacio.

A cavada la merienda
y andandosse paseando
cogiendo una yerbesitas
de las que cojen por mayo
la Bentura de Teresa
le trujo a allarse un nabo.

(Jarraituko du)

A. O.

comercial
san juan

Garibai 12,
Tfnoa: 79 13 05

ENMARKETAZIOA

Zerkaosteta 4,
Tfnoa: 79 13 84



KILI-KOLO
Ferrerias 21
Tfnoa. 797006
ARRASATE



1 943an On Jose Maria Arizmendiarrietaren eskutik sortu bazen ere, ia hogeit urte behar izan zituen Juventud Deportiva Mondragon kirol elkarteak kirolari talde sendoa sortzeko.

Hirurogeigarren hamarkadan, Iturripeko pista berriaren inaugurazioarekin batera, bere indarrak Gipuzkoan zehar -Bergara eta Tolosako Beotibarren batez ere- neurtzen hasi zen atleta belaunaldi berria atera zen. Gehienak abiadura-korrikalariak eta

pisu-jaurtitzailleak ziren eta gogotik entrenatzen zuten.

Halako batean, 1965ean, Donostiako Anoetara joatea tokatu zitzairen, klubaren arteko Gipuzkoako Txapelketa jokatzera. Larunbatean joan eta igandean konpetitu.

Lo Anoetako OJ Eren egoitzan egiteko ziren. Gauean, berriz, norbait egoteko giltza jiratu eta denek ospa Alde Zaharrera. Parrandan bapoa ibili eta gero, berandu oheratu eta biharamonean elastiko beltz-horiak eta iltzadun zapatilak jantzi eta izerdiak botatzera.

Argazkia Anoetan bertan atera zen

eta zuzendaritzakoekin batera, atletak et jarraitzaile mondragoetarrek zeuden. Zutik ezkerretik hasita, **Jabier Bergaretxe, Emilio Laguni-lla, Jose Ramon Urzelai, Santi Aranburuzabala, Migel Angel Heriz, Pako Azkonaga, Nikolas Elgezabal, Jose Mendiarratx, Jose Ramon Bedia** eta **Joaquin Alvarez, EPPn** zebilen donostiarra.

Belauniko ezkerretik, **Tomas Garai, Jose Antonio Iraola, Felix Iturbe, Juan Mari Iraola, Juan Mari Osinaga** eta **Jose Ignazio Bedia**.


PUB HAIZEA



ENARA
OSAGARRIAK 


Maalako Errabala 21
20500 Arrasate
Tfnoa: 79 62 32

LA MERCED IKASTETXEA



TXISTEA: Bazen ume bat hain handia, ilean zorriak izan ordez, Gremlinsak zituela.

-JEROGLIFIKOA-




Euskal Herriko probintzia (1187nd7)



BERTSOA:
Nere gustoko dena
ez dut aurkitu inon
egun batetan luna
bestetan jai egun.

OLERKIA

Menditik loreak
zerutik txoriak
eta elurra dagoenean
mutilak Kalean



ASMAKIZUNA
ZURI-ZURI
ETA BOROBIL
ILUNTASUNA
ARGITZEN DABIL.


(ILARGIA)

5. maila

ARRASATE PRESS ZEURE ETXEAN DOHAIN JASO NAHI BADUZU
EGIN ZAITEZ HARPIDEDUN

IZEN-DEITURAK.....
HELBIDEA.....
HERRIA.....

Azoka kalea 1, -ARRASATE- Tfnoa: 77 08 15



77 08 15

Itzalean

Existenziazaren amiltokian

b
e
h
e
r

a erori zara.
Berriro, motel.
Begi horidun katuak
usaindu dizu bihotza.
Ez zaitula maite, kopon!

Egonera luzean ihartuz
egunak, lagunak.
Denbora ezaba ezinaren izardia,
izatearen zapalketa zeremoniotsua.
Hamaika koloredun kristala
harrikatzea.
Ulertu al dut?

Tira, beharbada
nigar egiteko lotsa,
desio izkutua.
Bizitzaren itzalean,
isilean.
Monotonia,
erlojuaren orratzak
tik tak tik tak...
barreneko taupadak,
ko-kum ko-kum ko-kum.
Ezer gehio.

Begi horidun katuak dio
ihes egin duela
usai tristedun bihotzak.

Itziar Bartolome

ITURRIOTZ taberna

GIRORIK

JATORRENA !!

Tfnpa:79 16 04



J. M. Heriz

Konpromezurik gabeko
aurrekontuak


Otalora Lizentziatua. Arrasate

18 ASTELEHENA

- 18.30 **Teletestua.** Era guztietako iragarki eta abisuak.
- 19.30 **Bapirulauke,** umeen saioa, aste honetan Musakolako Herri Eskolan grabatua.
- 20.00 **Berriak,** asteburuan Mondragoen gertatutako guztiaren berri, Koldo Rodriguezek aurkeztua.
- 20.20 **Mondrasport,** ATBren kirol-saioa, Beñardo Kortabarriak zuzenduta.
- 20.35 **Saltsa Maltsan,** Jaione Olabek palmeratxoak prestatuko ditu.
- 20.45 **Erreportaia:** Euskararen erabilpena Bergaran. Siadecoren azterketan oinarrituta, Eskoriatzako Irakasle Eskolako Bideo taldeak egindako lana.
- 21.00 **Play Back Jaia dia.** Arazo teknikoak eragindako kalitate eskasagatik aurtengo Play back jaia bidez grabatu ezinik gelditu zirenentzat errepikatuko da.

20 ASTEAZKENA

- 19.00 **Teletestua.**
- 20.00 **Berriak,** Arrasateko albistegia, Koldo Rodriguezek aurkeztua.
- 20.20 **Zenbat buru, hainbat aburu** mahaingurua. Gaia: Irakaslegaien praktikak Eskonatzako Irakasle Eskotan.



21.10 **Berriak** (errepikalidia)

22 OSTIRALA

- 19.00 **Teletestua.**
- 20.00 **Berriak,** ATBren informatiboa, Begoña Gararen eskutik.
- 20.20 **Erretratoa,** J.R. Elortzak zuzentzen duen elkarrizketa. Gonbidatua: Agustin Arregi, "Bueno" tabernakoa. Zinegotzi ohia eta pilotari buruz oso jantzia.



- 20.50 **Musikantoi,** Mondragoeko musika-taldee buruz egindako erreportaia luzea.
- Berriak** (errepikalidia)

21 OSTEGUNA

- 11.00 **Teletestua.**
- 12.00 **Berriak** (bezperakoa)
- 12.20 **Zenbat buru, hainbat aburu** (bezperakoa)
- 13.10 **Berriak** (errepikalidia)



23 LARUNBATA

- 11.00 **Teletestua**
- 12.00 **Berriak**(bezperakoa)
- 12.20 **Erretratoa**(bezperakoa)
- 12.50 **Musikantoi**(bezperakoa)



Berriak (bezperakoa)

19 ASTEARTEA

- 11.00 **Teletestua.**
- 12.00 **Bapirulauke** (bezperakoa)
- 12.30 **Berriak** (bezperakoa)
- 12.50 **Mondrasport** (bezperakoa)
- 13.05 **Saltsa Maltsan** (bezperakoa)
- 13.15 **Bapirulauke** (bezperakoa)

SUKALDIAK

Zure etxebizitzarako apainketa-
-prolektuak egiten ditugu

eya

Sukalde eta bainugelako altzaritan
espezializatutako denda

Ignazio Zuloaga 4, Tfnoa: 79 05 07

Telebegi

"Telebistan agertzie? Etxakixat pa!" Baina ausartu egin nintzen. Errespetua sartzen zidan, beldurra nahi bada, baina kaletar arruntori halako aukerarik gutxitan tokatuko zaigula eta aproba egitea pentsatu nuen. Eta ez naiz damutu. Egia da hasierako agerraldietan zilborra baino goraxego sekulako korapiloo sortzen zitzaidala eta mingainak ez ziela beti nire aginduei erantzuten, baina gero eta lasaiago sentitu naiz kamera aurrean denbora joan ahala, eta patxada horrek gauza gehiagotarako ere balio izan dit. Zalantzan egon daitekeena animatu egin nahi nuke. Herrian telebista egotea sekulako aukera izan da. Aprobetxatzen duena ez da damutuko, ziur.

Harritu egin nau, dena den, telebistaren konplikazioak. Ordu erdiko saioa prestatzeak zenbat jenderen partaidetza eta zenbat ordutako lana eskatzen duen! Alde horretatik, irratia iruditzen zait eskuragarriagoa, ideiarene eta emaitzaren artean tarteko gutxiago delako. Ea hori ere iristen den!

Gure saioari dagokionez, gauza bat dut atsegin besteen gainetik. Musikaren zirkuitu handietatik aparte geratzen direnak Musikantoi-n sartzeko izan dugun aukera. Herri-telebista txikia izateak modaren murrizketatik libratu egin gaitu eta, ona ala ez, sartu ditugun musika eta gaiak gure gustokoak izan dira, onak ala ez, modakoak ala ez.

Hiretako be hortxe jak aukerie. Etorri adi!

Mikel Irizar



Jose Ramon Elorza eta Luis Sagasta "Mane" k tremendo pasatu zuten *Erretratoa* saioan. Programaren amaiera aldera erropak aldatu eta sekulako serenata eman ziguten.



Haratuzteak 91" programa berezarako hiru izan ziren gonbidatuak eta hirurak behar bezala mozorratuta agertu ziren: **Rosarito Zeziaga, Antton Zumalde** SDUCeko lehendakaria eta **Tere Zabaleta**.

Telebelarri

◆ "Jubilatuene etxeetan agertzen diren jubilatuen batzartesteko adina gorantz doa urterik urte, jubilatuz gazteenak agertzen ez direlako".

Antonio Muruak Zenbat buru hainbat aburu saioan.

◆ "Jubilatuene etxeetan dagoen leku eskasiaz, jokotik aparte ezin da ezer egin".

Simon Arregik Zenbat aburu hainbat aburu saioan.


◆ "Badago 65 urteko jubilatuz bat Mondragoene egunero Udalaiztera joaten dena".

Antonio Muruak Zenbat buru hainbat aburu saioan.



ARIES
Martxoaren 21etik
Apirilaren 20ra

Egonezina nagusituko da zuregan Aries eta baliteke zure xedeak lortzeko gogorkeriarako joera azaltzea. Zure izakerak lehenengo iristea agintzen dizu beti. Zeharbideak erabiltzea komenigarri dela oharatu beharko zara.




LEO
Uztailaren 23tik
Abuztuaren 23ra

Zorte oneko izango zara bai amodio bai lan arloan; halere itsu segituko duzu daukazuarenekin konformatzerik ez duzulako izaten. Errealitateetik urrun bizi zara eta jaso eta eman daitekeena baino gehiago espero izaten duzu beti.



SAGITARIUS
Azaroaren 23tik
Abenduaren 21era

Intuizioak eta esperientziak diotsunaren arabera jokatuko duzu datozen egunetan Sagitarius. Ideia eta eritzi originalak izango dituzu eta ez duzu arrazioa ukatuko dizunik izango. Barne ezaguketa egiteko une aproposa duzu oraingoa.



TAURUS
Apirilaren 21etik
Maiatzaren 20ra

Dirua erruz gastatzeko joera izango duzu Taurus, eta zure finantzak ez daude horretarako; datozen egunetan xuhur eta zuhur samarra izatea komeniko zaizu, zorrik egin edota azpikeriaren bat jasango ez baduzu.




VIRGO
Abuztuaren 24etik
Irailaren 23ra

Energiaz gainezka zaudelakoan gogor ari izango zara lanean; halere asteburua iritsi orduko jota zaudela konturatuko zara, ahal duzun baino indar fisiko handiagoa egingo duzulako. Urduritasunaren ondorioz gertatuko zaizu.



CAPRICORN
Abenduaren 22tik
Urtarrilaren 20ra

Idea originalak etorriko zaizkizu burura. Aitzitik, ideia horiek praktikan jartzeko behar izango zenukeen eraginkortasuna faltan izango duzu. Hoberena, ideia horiek norbaitekin elkarlanean gauzatzea izango litzateke, Capricorn.



GEMINI
Maiatzaren 21etik
Ekainaren 20ra

Barruak sutan darraizu Gemini, eta edonori ezinezkoa irudituko zaio zurekin elkarriketa lasaink izatea. Gogor egin beharko diozu egoera honi bere menpean egoten jarraitzerik nahi ez baduzu. Ariketa fisikoa egitea onuragarri izango zaizu.



LIBRA
Irailaren 24etik
Urriaren 23ra

Ez da oraingoa inorekin harremanetan hasteko momentu aproposena Libra, ez maitasun arloan ezta besteetan, ez bait zara edonoren eritziak errespetatzeko gauza izango eta tirabira serioak sor ditzakezulako. Ariketa fisikoa egizu.




AQUARIUS
Urtarrilaren 21etik
Otsailaren 19ra

Ez zara lagunak adieraziko dizkizun nahigabeak ulertzeko gai izango eta baliteke tirabiratoren bat suertatzea. Isilik egonez kontraktorik esan gabe mesede izugarria egingo zenioke. Gainontzean bai primerako egoeran jarraitzen duzu.




CANCER
Ekainaren 22tik
Uztailaren 22ra

Ez zabilta zeure buruarekin oso osoko eta argi ibili beharko zenuke etxebarruan eskuartean sua darabiltzun guztietan, baliteke bonberoei deitu behar izatea suertatzea eta. Atsedena izango da behar beharrezkoa izango duzuna.




SCORPIO
Urriaren 24etik
Azaroaren 22ra

Txikikeriei emango diezu batez ere garrantzia eguneroko egin beharretan eta aurrera egin ezinda zabiltzala konturatu; haserre egongo zara zeure buruarekin. Osasun aldetik ez zara oso osoko egongo eta primeran etorriko litzazuke atsedena.



PISCIS
Otsailaren 20tik
Martxoaren 20ra

Nahikoa lan izango dituzu zeuk zeure helburuak lortzeko trabak gainditzen Piscis eta hobe izango duzu fundamenturik gabeko eta aholku ezkor kutsua dutenei jaramonik ez egitea, apaltasuna eta etsipena baino ez jasatea suerta liteke eta.




HIRU S. A. MEKANIZAZIOAK

- Doitasunezko mekanizazio plano eta langileen arabera
- Fresatzeko makinak
- Zenbakizko kontrola
- Mekanizazio-zentroak
- Tornuak
- Artezko makinak, etab.

Zaldispe kalea 10, ARRASATE
Tfnok: 79 67 80 / 79 05 61
Posta kutxa 95. Telefax: 79 80 97

Goiain Industrial Poligonoa. 24 Apartatua
Tfnok: 945; 45 54 28 / 45 54 54 / 45 54 53
Telefax: 45 54 74, 01170 LEGUTIO

DENDARABA



MERKATAL ZENTRUA

Paz, Postas eta Independencia kalea Tfnoa: 26 79 83 GASTEIZ

OPEL CORSA BERRIA

ZEURE ESKU INJINERUTZA ALEMANA

BERTSIOAK	ATEAK	MOTOREAK	P.S.N.-P.V.P.
City	3	1.0	1.034.000*
SWING	3 / 4 / 5	1.0 / 1.2 / 1.4 1.5 D / 1.5 TD	1.066.000 <i>tatik*</i>
Joy	3	1.2 / 1.4	1.251.000 <i>tatik*</i>
GL	4 / 5	1.2 / 1.4	1.348.000 <i>tatik*</i>
Joy Sport	3	1.4	1.437.000*
GSi	3	1.6i	1.683.000*

Heldu CORSA aukera zabal eta berriari: gaztea, dinamikoa, atsegina... 36 bertsio, zuzetat egoki-egokiak, behar duzun guztiarekin. Barnealde eta bolante inguruaren diseinu berria; 3, 4 edo 5 atekoak. 100 CV-tarainoko potentziaz. Eta zeure Opel Corsa berria Opel Credit-en bidez finantziatzeko aukera. Eskatu berehala zeure Opel Corsa.

P.S.N.-P.V.P. 1.034.000 Pta. *tatik**



Betidanik ekologikoak. Nahi baduzu, berunik gabekoa.

* Fabrikatzaileak gomendaturiko prezioak (Penintsula eta Balearretarako). Garraioa. BEZ eta emate-aurreko gastuak barne. Kopuru handiko salmentak ere bai. Eska informazioa zeure Opel Kontzesionari Ofizialari. Eta finantziazio eta leasing-erako, ez ahaztu Opel Credit, Opel Leasing eta Opel Renting-en baldintza paregabeak.



EZAGUTU EZAZU

TALLERES OLA, S. L.

Olabarrena Auzoa, z/g. Tfnoak: 76 33 44 / 45 / 46. BERGARA (Guipuzkoa)

Erakusketa ARRASATEN: Loramendi, 2. Tfnoa: 79 05 86

DEBA ARRO. LEINTZ BAILARA ETA GOIERRI GARAIrako
kontzesionaria

Zerbitzu Ofiziala URRETXUn

TALLERES ALTAMIRA

Kontzesionari Ofizialak

Iparagirre. Tfnoa: 72 33 71

OPEL 
Hobeak esperentziaz